ELKARRIZKETA: JAKOBA REKONDO, LANDAREETAN ADITUA

# Arrasate PRESS

1998ko Azaroak 27
430. zenb.



## Euskal Herrian misiolari

IKUSPEGIA: J.M. VELEZ DE MENDIZABAL • EUREN IKUSPUNTUTIK: J. I. TELLERIA
KULTURA ELKARRIZKETA: TINIEBLAS GONZALEZ • KIROLAK: L. REKARTE SARIA


Musakolako
kiroldegia
Makatzena
Monterrongo
Parkea
La Merced
Ikastetxea
Musakolako
gasolindegia
Erguin Herri
Ikastetxea
Arrasateko
Alde Zaharra
Ertzaindegia
Kataide
Santa Barbara
parkea
Eskualde
Ospitalea
Eskola
Politeknikoa
San Andres
Igandeetan, astearteetan eta ostegunetan
Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan
Beti Gaueko 21:00etatik 22:00etara
BETIKO GUNEETAN
Zaborra
Behar den unean
dagokion gunean
Markulete
Garagartza
Gesalibar (Santa Ageda)
11
12
1
2
4
Eguna-Día

# Inkisidore berrietatik aske



J. M. Velez de Mendizabal

Gizaldi luzetan zehar, mundua ohol lau bat zela sinestu zuten gure aurrekoek, espazioan zintzilikatua, unibertso osoaren zentrua.

Gizateriaren oroimen historikoan galtzen bide den munduari buruzko kontzeptu horrek egundoko aldaketa ezagutu zuen XVII. mendean, Galileo Galilei-ri esker, filosofo, pentsalari eta zientzia gizonak Sienako katedralaren lanparen mugimendu kulunkariaz jabetu zenean. Eta Kopernikoren sistema heliozentrikoaren aldeko apustua egin zuen, haren *De revolutionibus orbium caelestium* zeritzan ikerlanari jarraiki. Galileok, gizakiok, galaxia neurtezinetan galdutako hauts tanta bat ginela aldarrikatu zuen ozenki, garaiko Inkisizioak berehalako faktura pasatu bazion ere. Eta teoria zientifikoak orok bizitzarik apalenaren aurrean ezer gutxi balio dutelakoan zegoelako, bere teorizazio ausartari uko egin zion, elizaren sutzar garbitzailetik salbatzearren.

**Gurea ez da zientzia aplikatua, herri sentimendua baizik**

Gaurreguneko inkisidore torkemadazaleek denetariko kalifikatiboak jartzen dizkigute euskaldunoi, aurrera begira itxaropentsu gaudela, etorkizun hurbileko hodeiertzean lainorik gabeko zeru urdina antzematen hasi garelako. Errenazimentuko egunetan kokatzen da historikoki nazionalismoaren abiapuntua. Euskal Herria garai hobeak bizitzera prestatzen egon daitekeelako, insolidario, basati, burumotz, arrazista eta inork asma ditzakeen titulu iraingarri guztiekin jantzi gaituzte. Eta txalo zaparrada ugari eskaini zaizkie, estatu zentralistaren uste eta nahian hertsita bizi diren betikoen aldetik.

Akatsetatik erabat libre ez garela dakigun arren, inkisizioko suarekin mehatxatzen gaituzten horiei zera esan geniezaieke, munduko herrienganako solidaritatea maiz erakutsi dugula, arrazistaren sanbenitoa eseki zigunari alderantzizko ereduekin sarri erantzun diogula eta ergel izanik ere, prest gaudela "buruargi"-ekin edozein tokitan deman hasteko. Basati samarrak garela onartuko genieke, batez ere euren "sotiltasun pozointsua" erabiltzen ez dakigulako.

Estatu monolitiko eta suntsitzailearen ideia absurduaren kontra jo genuen euskaldunok aspaldi. Eta jarrera horren argitasunean segitu nahi dugu tinko, militantzia aktiboan bakarrik egin baitezakegu indartsu geure izana, hots, mundu osoko herriei solidaritate eta begirunea eskaintzera eramaten gaituena. Noski, baita espainiar huts sentitzen diren guztienganako sinpatiarekin, geure bidetik lasai ibiltzen uzten diguten heinean.

Gurea ez da zientzia aplikatua, herri sentimendua, baizik. ■

---

*"Nire filmak ispilatzen duen egoera ez da errepikatu behar. Ez dugu amorruz bizi diren haur gehiago nahi"*

**Tinieblas Gonzalez**

# 370

**ordenagailu saldu dira MEPen**

Mondragon Eskola Politeknikoko 170 ikaslek beste horrenbeste ordenagailu erosi dizkiote Montteri, Gotzon Arregi irakaslea bitartekari zutela. Beste 200 ikaslek, berriz, Durangoko enpresa bati egin diote erosketa. PC bakoitza 135.000 pta.tan irten zaie erosleei, BEZik gabe.

ITURRI ONETIK

## Nor dago ikasle ezezagunen atzean?

Diru asko mugitzen da informatikaren inguruan. Galdetu bestela Gotzon Arregi Mondragon Eskola Politeknikoko irakasleari. 1982an ekin zion ordenagailuak kopuru handitan erosteari, ikasleek merkeago eros zitzaten.

Aurten, ordea, lehia agertu zaio. Inork ezagutzen ez duen ikasle talde batek ere antzeko eskaintza egin du. Lortu ere, Gotzonek baino jende gehiago lortu dute beren zerrendetan: 200 lagun, beste horrenbeste ordenagailu erosteko prest. Kontua da inork ez dituela ezagutzen. Erosteko prozeduran ere ez zen inoren izenik agertzen. Eman duten telefono zenbakia ere edo komunikatzen dago edo ez du erantzuten. Honek susmo txarrak zabaldu ditu hainbat jenderen artean: ikasleak dira benetan ibili direnak eskaintza horren atzean ala ordenagailu enpresa bat?

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Joxe Aranzabal. **Kazetariak**: Marijo Deogracias, Ubane Madera,Maider Osa. **Publizitatea**: Kaittin Allende, Nerea Zallo,Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26) **Diseinua**: Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemailea:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak**: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran,Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna**: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia**: Marijo Deogracias.

Arrasateko Udalaren laguntzaz | Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz | Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

## EUSKARA, JALGI HADI PLAZARA!

Baina plazan badago euskara zapaldu nahi duen kanpotarrik, eta euskara dantzara ateratzen duen edonor mehatxatzeko prest dago.

Logikak agintzen duenez, zurea ez den lurralde batera joateak bertako kultura eta hizkuntzan integratzea dakar. Hala izan da behintzat gainontzeko lurraldeetan. Aitzitik, Euskal Herria, euskararekin batera, beti izan da zapaldua historian zehar, diktaduran batez ere. Garai haiek Francorekin hil ziren batzuentzat eta gurean zapalkuntzak aurrera egin zuen konstituzioaren erreleboarekin, espainolismo eta faxismoaren sehaskan jaiotako eskuinkumeekin.

Aspaldian haien aipamenik egiten ez zela eta (hori izan liteke beraiek diskriminatuta sentitzeko arrazoia) beren presentzia sentiarazteko zerbait deigarria egin nahi izan dute *Arrasate Press*i egokitu zaio beren antzerkiaren bigarren papera (beraiek lortu nahi baitute protagonismoa).

Aspaldi hondoa jo zuen espainiar inperialismoaren barkuaz amesten, hango konstituzioaren izenean ukatzen dio aldizkariari euskaraz idazteko eskubidea. Bere borrokaz Arko ixtea edo elebiduna egitea lortuko omen du, bere gutunean sinadura jartzen ere ausartu ez den talde honek.

Ostiraleko alean albistea irakurri genuenean harridura xelebre batek inbaditu zuen ordua arteko monotonia. Salaketa zentzugabekoak entzutera ohituak gauden arren, mehatxu koldar horren aurrean ezin ulertuak nahastu gintuen. Egia esan, txiste txar bat entzundakoan geratzen den tonto aurpegia geratu zitzaigun.

*Arrasate Press*en guztia euskara hutsean idazteagatik ez da inor diskriminatzen, ez euskaldunik behintzat, ezta euskotarrik ere (bigarren hauek ez dakite euskaraz, baina euskal kultura onartzen dute), guk dakigunez. Eta are gutxiago dago baztertua astero-astero aldizkaria zakarrontzira botatzen duen izaki hori.

Arrasatek ez du Euskal Herriko hiriburuetara joateko arazorik. Ostera, ez ote da bere bizitokiko kulturan integratu ezin duen jende hau komunikatzeko arazoak dituena? Beraiek dira beren gorrotoaren maskorretik ateratzen ez direnak. Euskaraz adierazteko eskubidea zapaldu ez ezik beren autodiskriminazioaz salatu nahi izan dute euskara erabiltzen duen euskaldun oro; eraso hau euskaldun guztiontzako izan baita, *Arrasate Press*ekin bakarrik sartzen diren arren zuzenki.

Errespeto falta omen da erdaldunentzat eta abertzale ez direnentzat aldizkaria euskaraz ateratzea. Hauek dute muturra, hauek! Ez dira, ez, inoiz gai izango, beraiena ez den kultura bat errespetatzeko. Bitartean, uxarrean segituko dute orain arte bezala, euskaldunok probokatzeko beste moduren bat bilatzen duten edo. Baina euskararen martxa tinkoegia da haien mehatxu histerikoek kikiltzeko.

***Arrasateko Jarrai***

## GIZAKIA ETA MAKINA

Makina gizakiak lagun du aspaldidanik batez ere lana bere laguntzaz hobeki egiten duelako, gehiago ekoiztera bideratzen duelako. Makinak, gailu edo tresna izatetik, motorraren asmakuntzarekin benetazko garapena ezagutu zuen, bai elektrizitatearen indarra eta bai erregaien indarra mofitatuz. Lan munduan ezezik doakigun mende honetan gizakiak bere aisialdiko kide hurbila bihurtzera eraman du makina. Lan makinak aisialdi gehiago eman dio gizakiari, eta gizakiak bere aisialdia makinarekin betetzen ikasi du. Aurreko mendeetan gizakiak bere izpiritualtasuna lantzeko erabiltzen zuen aisialdia. Batez ere azken mende erdi honetan gizakiak baimena eman dio makinari aisialdietan makina izan dadin gizakiaren izpiritualtasuna landuko duena. Gizatasun itxura duen makinari onartu dio gizakiak toki hori bere bihotzean. Telebistari, bideoari, irratiari, diskojogailuari eta kaseteari. Aintzinako izpiritualtasun berezkoa, naturala, gizatasunez betea, ordezkatu du robotaren izpiritualtasun itxuraz gizatasunezkoarengatik. Galdera da, jarri behar al zaio makinari nonbait muga? Gizatasuna oztopatzen duelako? Lan munduan ekoizpena gehitzen du. Aisialdian, aldiz, izpiritualtasun berezkoa, naturala, ordezkatu egiten du, eta makinak batez ere izan edo ez gizatasun itxura robot izpiritualtasuna du, beraz gizatasuna mugatzen du, indar gehiegi badu. Eta indar gehiegi du gaur egun, eta izango du gero ere. Kontsumitze denboran, eta kontsumitze aldian, bere ozentasuna, bolumena, eskutxo bateaz higituz gero. Tentazioa da aisialdiko makina, robot izpiritualtasunaren gaitza dakarren tentazioa. Ez gu tentaldira eraman, aska gaitzazu robotetatik, puskatu makina. Gizatasun egarri, itxura ez da aski, iraultza ekarri.

***Llon Otero Uribarren Iregi***

## ASTOARI MONUMENTUA

*Arrasate Press*en irakurri dot Musakolan edo Zigorrolan Astuari estatua edo monumentu bat ein biher dotzela eta horregaitik etorri jat burura nere berraitona Jose Mateo Erguin Arregiri pasau jakona 1860. urtean gutxi gorabehera. Bere emazte eta seme-alabekin Musakolako errotan bizi zan. Asto bat zeuken berari laguntzeko. Artoirina egitxen auenian zakuak eramatera baserrixetara faten zan eta konturatu zan oso asto azkarra zala. Baserriaren izena entzunda bakarrik, astua zuzen-zuzen faten zan izendatutako baserrira. Orduen pentsau zuen astua bakarrik bialtzea. “Fan holako baserrira” eta astua tapa-tapa fatezan, baserrikuak zakua hartzeotzen eta astua errotara bueltatzen zan.

Gero eguakotx batzuetan ferixara faten ziren, hantxe gauzak erosi, beste batzuk saldu eta lagunakin meriendatu. Bitxartian astua kanpuan lotuta bera fan arte. Ogi puskat emoten eutzen eta biak lasai-lasai errotara.

Baina behin ferixako lanak ein, meriendatu eta fan zan astuangana eta astoik ez. Ibili zan Mundraue guztian astuaren bila, baina etzan astorik agertu. Ixa negarrez ekin zan errotara bidian bere pentsamendu tristiakin. Zer egingo auen asto barik, zer esango eutzen bere andreari…

Heldu zan errota hondora eta etzakixen aurrera edo atzera ein eta horrelako momentu larrian eztula eman otzen. Orduan, astuak entzun eta arrantzaka erantzun eutzen. Han fan zan Jose Mateo astuagana. Astua lotuta zeuan zuhaitzetik askatu eta laztan batzuk emanaz fan ziren bixak poz-pozik errotara.

Orduko lagunen bromak haundi samarrak izan zien. Horregatik uste dot, astuak merezi duela monumento haundi bat, baserritarrentzako paregabea izan baita.

***Angel Erguin***

# Onartu zirenean baino gehiago erespetatzen dira Giza Eskubideak?

*Giza Eskubideak orain 50 urte onartu zituen Nazio Batuen Erakundeak.*



**Juanjo Maltras**
**(37 urte)**
**Langilea**

Bai, bai. Orain askoz ere gehiago.



**Maria Eugenia Paunero**
**(50 urte)**
**Langilea**

Ez. Ikusi eta entzuten ditugun gauzen arabera, ez dut uste askoz gehiago errespetatzen direnik. Gauza batzuetan bai, baina ez askoz ere gehiago.



**Pili Agirrezabal**
**(28 urte)**
**Langilea**

Piska bat gutxiago. Lan egiten duten haurrak ikusita eta telebistan erakusten dutenarengatik, gutxiago errespetatzen direla dirudi.



**Antoni Diez**
**(49 urte)**
**Etxekoandrea**

Nik uste dut gehiago errespetatzen direla. Tolerantzia eta hezibide gehiago dago.



**Iñaki Zubizarreta**
**(38 urte)**
**Langilea**

Gehiago. Jendeak kultura gehiago dauka eta gehiago errespetatzen dute elkar.



**Jorge Pinillos**
**(18 urte)**
**Langilea**

Bai, noski. Orain 50 urte ez zeuden gaur egun dauden gauza asko



**Enkarna Sasiain**
**(53 urte)**
**Langilea**

Lehen baino gehiago egiten da eskubideen alde, baina gehiago egin beharko litzateke.



**Jose Maria Mendizabal**
**(43 urte)**
**Langilea**

Gehiago. Gai hori landu egin da. Enpresan adibidez, sindikatuak daude, langileek gehiago protestatzen dute…

**Lore**
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

UNZUETA
JATETXEA
OKELAK ETA ARRAINAK PARRILAN
• Ospakizunak
• Jaunartzeak eta bataioak
Zabola auzoa. ARAMAIO. Tel.: 945 44 50 95

## 27 ostirala

**■ ZINEA**

*Algo pasa con Mary*, Alai Zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

**■ ROCK KONTZERTUA**

El Corazon del Sapo eta Eskizofrenia taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean, *Ekintza Zuzenak* antolatuta. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da eta sarrera 500 pta. kostako da.

**■ JAIA BERTITZEN**

Beñat, Estebe eta Tito DJ.ak arituko dira goizeko 02:00etatik aurrera Bertizen diskotekan. Sarrera dohainik izango da.

**■ PIANO SAIOA**

Azaroan zehar egin diren piano emanaldiek jarraipena izango dute Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan. Saioa arratsaldeko 19:00etan hasiko da Juan Luisen zuzendaritzapean.

## 28 larunbata

**■ ZINEA**

*Algo pasa con Mary*, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

**■ EUSKARARI BAI!**

Euskara Erakundeen Kontseilua egiten ari den *Bai Euskarari* kanpainaren barruan, Arrasateko Bai euskararik jai eguna egingo du larunbatean. Arratsaldeko Giza kate erraldoia egingo dute herriko plazan, 18:00etan. Horrez gain, euskal dantzak eta trikitilariak arituko dira. Gauean 21:00etan, herri afaria egingo da, kiroldegian.

**■ ÑAKE TALDEA AMAIAN**

*Comicos muy peligrosos* antzezlana eskainiko dute Ñake antzerki taldekoek Amaia antzokian. Saioa gaueko 22:30etan izango da eta sarrera 800 pta. kostako da (gazte txartelarekin 600).

**■ TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX**

Hiru pailazoen azken lanaren estreinua egitera hurbilduko dira Eskoriatzako kiroldegira. Axtrokik antolatutako saioa arratsaldeko 17:00etan izango da.

**■ PIANOA ENTZUTEKO AUKERA**

Juan Luisen piano emanaldia gaueko 23:00etan izango da Mondragon hoteleko Cafe-pianoan. Oraingoan bere alaba Begok lagunduko dio mikrofonoan.

## 29 igandea

**■ ZINEA**

*Algo pasa con Mary*, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

**■ ARGAZKI RALLYA**

Aretxabaletako Eguzki-Alde elkarteak VIII. argazki rallya antolatu du. Parte hartzaileak goizeko 08:30etan agertu beharko dira elkartean, izena eman eta zuri-beltzeko karretea hartzeko. Izen ematea 1.000 pta. kostako da. Igandean 14:00ak arte izango dute 10 gairen inguruko argazkiak ateratzeko.denbora.

**■ ANTTON MARKAIDEREN ALDEKO MEZA**

Donostiako Amara auzoko Sagrada Familia elizan Antton Markaideren aldeko meza egingo da datorren larunbatean. Meza 19:00etan izango da. Ondoren Markaidek berak zuzendu zuen elizako abesbatzak omenezko emanaldia eskainiko dio.

## 30 astelehena

**■ ZINEA**

*Algo pasa con Mary*, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

**■ LANDARE IKASTAROA**

Ekinek antolatutako landareei buruzko ikastaroaren bigarren saioa eskainiko du Jakoba Errekondok. Gesalibarko Jentil-Ola elkartean izango da, arratsaldeko 18:00etan.

## 1 asteartea

**■ ZINEA**

*Algo pasa con Mary*, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

## 2 asteazkena

**■ EUROA MINTZAGAI**

Berbarik euroari buruzko hitzaldia antolatu du. Fernando Retolaza ekonomista arituko da 20:15etatik aurrera Aretxabaletako udaletxe zaharrean.

## Herri Komunikei
## III. Jardunaldia

Ostiralean eta larunbatean
izango ditu: Herri Komunikab
leak.

Bi egunean zehar Euskal
tzarkidek hobekuntza izango

# 3 osteguna

**■ ZINEA**

*Algo pasa con Mary,* Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

**■ BAI EUSKARARI**

Epaitegietan euskarari ematen zaion erabileraren inguruan hitzaldia antolatu dute Monterronen. Saioa arratsaldeko 19:00etan izango da.

**■ PORROTX ETA KULTUR ERROTA**

Kultur Errota ekimenaren barruan Porrotx pailazoa hurbilduko da San Viator Txiki ikastolara. Saioa ikastolako aretoan izango da, arratsaldeko 17:00etan.

**■ JABILOREN ALDEKO III. AZOKA ALTERNATIBOA**

Gaztetxeak Jabiloren alde antolatu du III. merkatu txikia. Hori dela eta, jendeak erabiltzen ez dituen mota guztietatko gauzak Gaztetxera eraman ditzatela eskatu dute.

**■ HORMIRUDI LEHIAKETA**

Bazkide kanpainarako hormirudi lehiaketa antolatu du AEDk. "Ametsa Eraikiaz Doa. Egin zaitez bazkide AEDn" leloa eraman beharko dute lan guztiek eta mezua ondo irakurri beharko da. 25.000 pta. lortuko ditu hormirudi hautatuaren egileak abenduaren 29an. Lanak aurkezteko epea abenduaren 22an amaituko da. Hormirudiak 34x30 neurrikoak izan beharko dira.

**■ PIRINIOTARA IRTEERA**

Besaide Mendizale Elkarteak irteera eratu du Piriniotara, Lintzara, hain zuzen ere. Irteera abenduaren 5etik 8ra izango da biak barne. Izen ematea abenduaren 1etik 3ra bitartean egin ahal izango da Besaideren egoitzan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30ak arte.

**■ GABONETAKO LOTERIA**

AFAGIk, Gipuzkoako Alzheimerra duten senideen elkarteak, Gabonetako loteria jarri du salgai. Boletoak honako toki hauetan eros daitezke: Milar Elkoro, Azkoaga farmazia (Ferrerias) eta Aita Menni Eguneko zentruan (Uribe auzoan).

**■ KOLONIALISMOA IRUDIETAN**

Jaizale tabernan, azken 100 urteotako koloniei buruzko erakusketa dago ikusgai, igandea arte.

Komite Internazionalistak taldeak antolatu du.

**■ GERONTOLOGIA IKASTAROA**

ICTEk, 3. Adinekoen Institutuak, gerontologia ikastaroa antolatu du, abenduaren 10etik 18ra, 15:30etatik 18:30etara ICTEk Zerrajeraren eraikuntzan duen egoitzean. Berri gehiago 943 77 16 99 edo 943 77 17 15era.

**■ GABONAK DONOSTIAN**

Arrasate Gizarte Zerbitzuak 3. adinekoentzat antolaturiko Gabonak 1998 programa eratu du. Abenduaren 24an eta 25ean bi eguneko egonaldia eratu dute Donostiako Orly hotelean. Berri gehiago Bergarako Gizarte Zerbitzuan edo 943 76 21 40 zenbakian.

**■ ERAKUSKETA MONTERRONEN**

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako Zentruko ikasleen lanak daude erakusgai Monterronen. Harizko lanak, margolanak, gurutze puntua, makrame eta antzekoak ikus daitezke.

**■ EGINGO DUGU**

Egin ordezkatuko duen egunkariaren aldeko diru bilketarekin jarraitzen du Arrasateko Egingo Dugu taldeak. Astelehen eta ostegunero Arrano Elkartean egongo dira.

**■ ENTZIERROA HARRESIN**

Felix Aialak Harresi aretoan erakusgai jarri dituen entzierroei buruzko margo lanak ikusteko aukera izango da abenduaren 5a arte.

**■ LITERATUR LEHIAKETA**

Bi atal egongo dira, bata lehen hezkuntzakoa, ipuina eta poesia lantzeko, eta bestea DBHkoa, ipuin, kantu, kontu zahar eta abarren bilketa egiteko. Bidaltzeko epea abenduaren 18an amaituko da.

**■ ARIZMENDIARRIETA LEHIAKETA**

Gizabide fundazioak Arizmendiarrieta XIII. lehiaketa antolatu du, "Amets bat eraikiz" lelopean. DBHko Euskal Herriko ikasleek ezezik, Ez-Derrigorrezkoek ere har dezakete parte.


Enpresetan lan egiteko

**HIZKUNTZA TEKNIKARIAK**

behar ditu Emun koop. E.k

Enpresen ezagutza baloratuko da.
Interesatuok bidali *curriculuma*
eta argazki bat, abenduaren 4a baino lehen.
Arrasateko 227 posta kutxara

(*Euskaldunon Egunkarian* azaroaren 14an eta 15ean agertutako iragarkia)


**ei buruzko**

egoitza nagusiak maizter berriak
o III. Jardunaldietako parte hartzai-

kanpotik etorritako 150 inguru bil-
i nagusia jardunaldiotan.

## USTEAK USTE

### *Jardunaldiak herri komunikabideez*

**Urtarrilean berariazko batzorde bat sortu zuen Arkok, aurten Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak antolatzeko aginduarekin. Harrezkero, ia astero-astero bildu da, jardunaldien nondik norakoak, edukiak, egunak, hizlariak eta horrelako antolaketa batean aurreikusi behar diren kontu piloa zehaztuz joateko.**

**Babesleak ere bilatu ziren. Egia esan, Arko ezaguna da hortik zehar eta sinesgarritasuna du. Horregatik, ez da zaila izan bai herri erakundeetan eta baita irakaskuntza eta kultura elkarteetan zein enpresa pribatuetan ere babesleak aurkitzea.**

**Prestakuntza lanak bukatu dira. Ale hau zure eskuetara iristen denean jardunaldietan izango gara bete-betean. Bi egunean zehar, ostirala eta larunbata, gure eguneroko bidean eten bat egin eta hausnarketa egingo dugu.**

**Gure lana nola hobetu, *Arrasate Press* eta ATB geroz eta hobeak izan daitezen. Horra hor jardunaldien muina guretzat.**

**Joxe Aranzabal**



# Seropositiboen zerrendari ez

**Jose Ignacio Telleria***

Dokumentu baten filtrazioa dela eta, pertsona seropositiboen erregistro bat egiteko asmoa zuten berri jaso genuen elkarteok. Hots, izen eta abizenekin osatutako eta hainbat galdera pertsonalen erantzunekin osatutako zerrenda.

Elkarteak hau aurrera eramatearen aurka azaldu ginen; honen aurrean, administrazioak anonimo eta kodifikatutzat definitu duen beste proposamen bat egin digu: izena eta lehen bi abizenen bi inizialak, jaiotze data eta lurralde historikoa.

Osasun zerbitzuek erregistro hau aurrera eramateko ematen dituzten arrazoiak garapenaren ezagutza eta pandemiaren egungo egoera dira.

Elkarteok, ordea, ez dugu konfiantzarik erregistro horretan. Lehenik eta behin, bere inguruan dagoen sekretismoarengatik (guk filtrazio baten ondorioz jakin genuen horren berri). Bestetik, Europako Elkarte Ekonomikoan seropositibo denak ez du funtzionario izateko aukerarik, eta hori dela eta, ezinezkoa zaigu horrelako administrazio batengan konfiantza izatea. Erregistro horretan azalduko litzatekeen pertsona batek izango lukeen etorkizunaz zalantza handia dugu.

Bestalde, ospitaletan estatistika fidagarriak egiteko adina datu dagoela uste dugu. Erregistro nominal batek Giza Inmuno Gabeziaren birusa normalizatu gabe dagoen herrialde batean seropositiboen konfidentzialtasuna arrisku larrian jartzen duela uste dugu, eta are gehiago informazio ihesak egunero gertatzen direnean.

> **“Ospitaletan estetistika fidagarriak egiteko adina datu dago”**

HIESAren prebentzioa fronte guztietan egin beharra dago; baina, jendea nola kutsatzen den dioen osasun arduradunen argumentuak prebentzioa bide batetik edo bestetik bideratzeko, ez zaigu erregistroa lejitimatzeko adinako arrazoia iruditzen.

Beraz, elkarteok erregistroaren aurkako jarrera hartu dugu. Era berean, gaur egungo datuak babestea eta Giza Inmuno Gabeziaren birusaren eta HIESAren normalkuntza bideratzeko politika egin eta erabili dadila proposatzen dugu.

Galdera honako hau da: gutako zein egongo litzateke familia artekoentzat (seme-alabengan, adibidez) etorkizunean ondorioak izango lituzkeen eta inguruan ere eragina izango lukeen ezaugarri hauetako zerrenda batean agertzeko prest?

* HIES Ekimeneko partaidea.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

## astea bi hitzetan

**Mugarriz-Mugarri**
Igandean, Mugarriz-Mugarriren 3. ibilaldia egin zuten. Udala-Besaide-Udalatx--Epele eta Kataideko mugarriak ezagutu zituzten.

Ibilaldi honekin bukatzen da AEDk eta Besaidek antolatutako ekimen hau. Arrasateko mugarriak eta inguruak ezagutzea zen asmoa. Antolatzaileen esanetan, 20-30 bat pertsonak parte hartu dute ibilaldi bakoitzean eta oso gustura gelditu dira. Datorren urterako antzekorik egingo dutela jakinarazi digute.

**ETTen aurka**
Jarrai Gazte Erakundeak deituta, Aldi Baterako Kontratazio Enpresen aurkako kale agerraldia egin zen joan den ostegunean. Jarrairen ustez, Aldi Baterako Kontratazio Enpresek gazteen etorkizunarekin jolasten dute, hauen kontura dirua eginez. Honen aurrean, hauen kontra mugiarazteko jendearengan kontzientzia piztu nahi dute.

**"Biziaren Azala" autobiografia**
Xanti Iparragirre bertsolariaren "Biziaren Azala" liburua aurkeztu zuten ostegunean Hendaian. Iparraldera ihes egin behar izan zuen bertsolariak bere bizitza kontatzen du liburuan. Jon Sarasuak idatzi du hitzaurrea eta *Bertsolari* aldizkariak plazaratu du.

Añarben jaio arren, Eskoriatzan bizi zen Xanti Iparragirre bertsolari eta bertsozalea, Iparraldera ihes egin zuen arte. Ezaguna da paraje hauetan, besteak beste, Almen Ikastolan orain urte batzuk sortu zen Bertso Eskolako irakaslea izan zelako.

**Aste Arabiarra**
Arrasateko Komite Internazionalistak, Aste Arabiarra izenarekin hainbat hitzaldi eman ditu aste honetan zehar. Nazio Arabiarra punta-puntako gaia izanik, sakonago aztertzea zen asmoa. Horretarako, astelehenean, Sahararen erreferenduma izan zen aztergai. Frente Polisarioko Mohamed Salemek eman zuen hitzaldia. Asteartean, Palestinako bakebideari buruz mintzatzen "Nación Arabe" aldizkariko Ignacio Alvarez izan zen. Eta asteazkenean, Irak izan zen hizpide. Hitzaldia,Elkartasuneko Komite Arabiarreko Carlos Varea kideak eman zuen.

Hitzaldi saio honi bukaera emanez, datorren astean Komite Internazionalistakeko kidea den Aitziber Ieregik Afrikako Etorkinei buruz hitz egingo du.



**FAMILIA GARAILE**
Larunbatean, Arrasateko 8 eta 11 urte arteko haurrek hauteskundeak izan zituzten. 404 haurrek botoa eman zuten norberarentzat beharrezkoena den eskubidea aukeratzeko. Mondragoeko haurrek, maitatu eta orientatuko dituen familia batean bizitzeko eskubidea aukeratu zuten.

" Milurte berriaren atarian gaude eta ekonomia globalizatuan sartuta; enpresa bakoitza bere aldetik ibiltzea ezinezkoa izango da. Mondragon Kooperatiba Elkartea bere garaian eta MCC gaur egun, enpresa ulertzeko modu bat dira, elkarkidetzaren bidez unean uneko giza eta enpresa erronkei aurre egiten laguntzen diguna. Lan bazkideek horrela ikustea edo ez denbora kontua da eta praktikan dituen eta etorkizunean izango dituen alde onak ikustetik etorriko da. Edozein modutan ere, uste dut asko aurreratu dela. Ez dago atzera egiterik eta hori egunak aurrera egin ahala geroz eta argiago ikusten da".

**FERNANDO GOMEZ-ACEDO**
*TU-Lankide, 1998ko urria*

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

# Gelmako behin behineko langileak kexu

Gelmako behin behineko langileek euren lan baldintzak bestelako langileenak baino askoz ere okerragoak direla salatu zuten ostiralean hainbat komunikabidetara bidalitako gutun batean. Makina gehiagoz arduratu beharra, lan erritmo handiagoan lan egin beharra eta ordutegitik kanpoko orduak sartu beharra salatu zuten. Enpresak behin behineko bi langile zigortu dituela ere jakinarazi zuten.

**KRITIKA GOGORRAK**

Gutuna sinatzen dutenek, gogor kritikatu zituzten Gelmako zuzendaritza eta enpresa batzordea, euren hitzetan, egoera hau onartzen dutelako.

Salaketa hauen aurrean, Gelmako zuzendaritzak ez zuen adierazpenik egin nahi izan. Enpresa batzordeak, berriz, ohar bat kaleratu zuen behin behineko langile anonimoen salaketa guztiak gezurtzat joz.

# Kooperatibismoaren baloreak gorde eta garatzeko institutua

Atzo arratsaldean On Jose Maria Arizmendiarrieta zenaren omenezko "Arizmendi Topaketen" XII. edizioa izan zen Eskola Politeknikoan. Hainbat ekitaldi bildu zituzten Gizabide Fundazioak antolatutako topaketek. Baina adierazgarriena Kooperatibaren Unibertsitate Institutuaren (KUI-ren) jendaurreko aurkezpena izan zen.

Lehenik eta behin, egitasmo honen zuzendaria den Jose Mari Larrañagak ekimenaren filosofia eta baloreak azaldu zituen. On Jose Maria Arizmendiarretaren esaera ezaguna erabili zuen: "Emaiozu gizon bati egun baten arrain bat eta egun baten jango du. Erakutsiozu arrantzan eta bizitza guztian jango du". Esamolde honekin, Jose Mari Larrañagak Mondragon Unibertsitateak, kooperatibismoaren inguruko unibertsitatea izanik, kooperatibismoa erakutsi behar duela adierazi nahi izan zuen.



KUI aurkezteko prentsaurrekoan Gizabidea Fundazioaren egoitzan izan zen.

Jarraian Jon Sarasua bertsolariak, KUIren helburuak eta helburuok lortzeko egin beharrreko lana azaldu zituen.

**KUI KOOPERATIBISMOA GORDETZEN**

Mondragon Unibertsitateak bultzatutako ekimena da. Kooperatibismoaren baloreak ezagutu, ikertu, gaurkotu eta hedatzea du helburu. Mondragon Unibertsitatearen nortasuna finkatu nahi da egitasmo honekin.

## Jaiotzak

- Unai Garitaonandia Capellan. Azaroaren 11n.
- Unai Ibarra Gallardo. Azaroaren 15ean.
- Igor Gonzalez Aierbe. Azaroaren 16an.
- Raquel del Pozo. Azaroaren 18an.

## Heriotzak

- Santiago Garai Etxabe. 76 urte. Azaroaren 14an.
- Mercedes Amo Traspaderne. 72 urte. Azaroaren 17an.
- Felipe Marco Ortega. 72 urte. Azaroaren 17an.
- Manuel Feijoó Domínguez. 88 urte. Azaroaren 18an.
- Rafael Beitia Loidi. 66 urte. Azaroaren 18an.

# Obenerrekako jolastokia berriztu dute



Obenerrekako enparantza lehen zegoen moduan.



Orain horela geratu da.

*Obenerrekako jolastokia ireki dute dagoeneko. Zeharo itxuraldatuta dago, maiatzean hasi eta bukatu berri dituzten lanen ostean. 16 milioi pezeta inguru erabili dira lanok egiteko. Dena den, oraindik eserlekuak ipintzea falta da.*

*Ziburu, txirrista eta antzeko jolasen inguruko zorua auto gurpilen kautxo birziklatuarekin eginik dago. Jausiz gero haurrek min gutxiago hartuko dute horrela. Elbarrituei bidea errazteko, jolastoki inguru guztian ez dago inolako trabarik eta iturri berria eta txirristarako igoera ere elbarrituentzat egokituta daude.*

*Lurra, asfalto gorriz eginikoa da, eta jolastokia inguratzen duen balaustrada, konkretez*

## Ordenagailuak merke: MEPen 370 saldu dira

Mondragon Eskola Politeknikoko 170 ikaslek beste horrenbeste ordenagailu erosi dizkiote Montteri, Gotzon Arregi irakaslea bitartekari zutela.

Gotzon Arregi ordenagailuak merkeago erosteko zerrendak egiten hasi zenetik1982an, urtero egiten dira horrelako erosketa handiak. Lehen urte hartan 14 ordenagailu saldu zituen. Hurrengo urtean, doblea. Baita hurrengoan ere. Horrela, iaz arte. Iaz 200 saldu zituen.

Aurten, ikasturte hasiera guztietan bezala, abisua jarri zuen Eskolako iragarki tauletan. Adierazi digunez, helburua berbera da urtero-urtero: ikasleei ordenagailuaren erosketa samurtzea, eskolan lan egiteko ondo etorriko zaie eta. Horregatik, onartu egiten dute eskolako ikasleak ez direnek ere izena ematea. Azken batean kontua da ordenagailuak ahalik eta merkeen erostea.

Hainbat aurrekontu aztertu eta gero, aurtengo enpresa irabazlea Montte izan da. 170 ordenagailu saldu ditu, 135.000 pta.tan.

Izan da beste ikasle talde bat helburu berdinarekin batu dena. Hauek 200 ordenagailu erosi dizkiote Durangoko enpresa bati, antzeko prezioan. Batzuek kalkulatu dutenez, sistema honekin 100.000 pta. merkeago eros liteke ordenagailua, merkatuan erosi ezkero baino.

Aurtengoak guztira 55 milioi pta.tik gorako salmentak izan dira. Datorren urtean 500 bat ordenagailu salduko dituzten itxaropena dute.




Gaur egun Maalako Errebalak itxura hau dauka.

# Maalako Errebaleko lurra aldatu egingo du udalak

Dirudienez, traba asko dauzka eta irristakorra ere bada. Arartekoak eta hainbat herritarrek kexuak bidali dituzte udalera jendea jausi egin delako. Hainbat froga egingo dituzte lur zorua aldatzeko sitema egokiena zein den zehazteko.

Maalako Errebaleko lanak oraindik bukatzeke dauden arren, udaletxean jada jendearen eta Arartekoaren kexuak jaso dituzte. Dirudienez, orainarte eginiko lanen ostean ipini duten lur zoru berriak traba asko dauzka eta pertsona bat baino gehiago erori egin da.

Arazo honi aurre egin nahiean, udalak lur zorua konponduko duela adierazi digu. Dena den, konponketa nola egin zalantzak dauzkate. Izan ere, lurra lau-lau jarri ezkero, irristakorra izango litzateke, Alde Zaharrean gertatu zen bezalatsu eta bestela, koska gehiegirekin gelditzen da.

Juan Antonio Urdangarin, Hirigintzako teknikariak jakinarazi digunez, bi sistema frogatuko dituzte konponketa nola egin erabakitzeko. Alde batetik, harri arteak morteroz bete daitezke, dituen koskak kentzeko. Beste aldetik, harriak suaren bitartez berotuz, harriaren hainbat elementu urtu eta honela ere homogeneitatea lortzen da.

Udalak, aipatutako bi sistema hauek frogatu ostean, arazoa konpontzeko egokiena dena hautatu eta kaleko lur zorua sistema hori erabiliz konponduko du. Bi froga hauek, Gabonak baino lehen egitea espero dute.

## Arizmendiarrieta sariak banatu ziren

Jose Mari Arizmendiarrieta XII. lehiaketaren sariak banatu ziren joan den ostegunean Mondragon Eskola Politeknikoan.

Lehen saritua, A mailan, Naia Pagoagak eskuratu zuen. San Frantzisko Xabier ikastolako ikasle honek, 100.000 pta.ko saria eskuratu zuen *Euria da* lanarekin. Bigarren David Sanchez eta Amaia Astiz izan ziren *A un paso de la muerte* lanarekin.

50.000 pta.ko saria eskuratu zuten Zizur Mayorrek Insitutuko ikasleek. Maila horretan 3. saria Alazne Alegrek eta Maite Mendietak eskuratu zuten, hauek ere San Frantzisko Xabier Ikastolako ikasleak.

B mailan, Ez derrigorrezko bigarren hezkuntzan, zortzi lan aurkeztu ziren eta irabazleak, 150.000 pta.rekin, San Viator ikastolako Igor Barandiaran, Eneritz Jauregi, Nerea Loiti, Ane Lopez de Bergara eta Ainara Otamendi izan ziren, *Bidasoa* lanarekin.

## BERGARA

### ❶Beart Eginen alde

Bergarako artistek *Egin* ordezkatzeko irtengo den egunkariaren aldeko eskulan erakusketa eta salmenta antolatu dute Kultura Etxean. Erakusketa azaroaren 18an ireki eta azaroaren 29an itxiko da.

26 lan daude salgai eta dagoeneko zazpi salduta daude. Xabier Azkarate, Kultura Etxeko atezainaren esanetan, orain arte ohi baino jende gehiago egon da erakusketan.

## ELGETA

### ❷Herri turistikoa

Elgetak bi gida turistiko izango ditu datorren urtetik aurrera. Bata, Udalak plazaratuko du datorren urteko udaberrian. Elgetako kaleak, historia, monumentuak, folkloreak, eta antzeko informazioak beteko ditu gida honek.

Bigarren gida enpresa pribatu batek eratuko du. Urte bukaeran edo datorren urte hasieran kalean egotea espero da. Kasu honetan, zortzi ibilbide turistiko, mapa eta guzti, agertuko dira.

Gidak, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez plazaratuko dira.




## OÑATI

### ❸Olinpiadak abian

Deba Garaiko Kuadrilen Arteko Olinpiaden III Edizioa abenduaren 30ean jokatuko da Zubikoa Kiroldegian. Goizeko 09:00etan, hasiko da olinpiada, igeriketa froga batekin. Ondoren, 10:00etan, esku pilota eta hockeyko partidak batera jokatuko dira. Biak eguerdiko 12:00ak baino lehen bukatu beharko dira. Izan ere, orduan saskibaloiaren txanda izango da. Hirukoitzen bitartez kirolarien trebetasuna frogatuko da. Olinpiadei amaiera emateko, sokatira egingo da.

Olinpiadetan garaile geratzen den taldeak 70.000 pezeta irabaziko ditu. Bigarrenak 35.000 eta hirugarrenak 20.000 pezeta.

Izen emateak 4.000 pezeta balio du eta abenduaren 19a baino lehen egin behar da.

## ANTZUOLA

### ❹Antzuolako hizkera

Antzuolako hizkera jasotzen duen liburua joan zen igandean aurkeztu zen jendaurrean. Egilea Jone Larrañaga izan da. Liburuan, Antzuolako ahozko euskararen fonetika, morfologia, aditza, sintaxia, lexikoa, esamoldeak, atsotitzak, kantuak eta lanbideen baitan biltzen diren hitzak jaso dira. Liburua 1.500 pezetatan dago salgai liburudendetan.

Jone Larrañagak orain bi urte Antzuola Herria ikerketa bekaren atal bat lortu zuen eta horren ondorioa da lan hau.

UROÑDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak * Proiektuak
* Instalazioak * Argiztapena
* Automatismoak * Bobinaketak
Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Ikerlanek 150 milioi pezeta inbertituko ditu mikrosistema teknologiak garatzeko

Urterriletik aurrera, eta datozen hiru urteetan, Ikerlanek 150 milioi pezeta inbertituko ditu mikrosistema teknologiak garatzeko. Helburua da MCCren ahalmen teknologikoa indartzea eta teknologia honetan oinarritutako jardueraren oinarriak ezartzea.

Mikrosistemak oso tamaina txikiko gailu adimenduak dira, zirkuitu integratuak erabiltzen dituztenak eta sentsore eta prozesu funtzioak egin ditzaketenak.

Etorkizunari begira, Ikerlanek estrategikotzat jotzen du ildo berri hau, Mekatronikan izango duen eragin handiagatik. Etxeko tresna elektrikoetan, automobiletan eta ekipamenduetan erabil daiteke.



**Urtarrilean ekingo diote Ikerlanen proiektu berriari.**

**ELKARLANA**

Ikerlaneko ingeniariak urtebete igaro dute Massachussetseko Teknologia Institutuan sistema hau lantzen. Horretan Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dute.

Orain, ordea, nahiz eta teknologia hau oraindik ere hasiberria izan, MCC sartu da proiektuan, etorkizunerako praktikoa ikusi baitu talderako honelako teknologiak garatzea. Izan ere, etorkizunean negozio berriak sor daitezke teknologia hau erabiliz.

Ikerlan hasia da, dena den, teknologia hau erabiltzen. Azbe-Zubia enpresarekin batera, adibidez, giltza berezi bat garatu du. Ikerlanek segurtasun sistema prestatu dio. Giltzak segurtasun sistema bikoitza dauka: mekanikoa eta elektronikoa. Honela, eta giltza galduz gero, ez dago zertan serraila guztiak aldatu; nahikoa da gainerako giltzak birprogramatzea.

Etorkizunean beraz, tresnak eta bere funtzionamendua eragiten duten sistemak nola txikitzen diren ikusten segituko dugu. Hauek gordetzeko lekua ere txikiagoa izan beharko da.

LASAGABASTER
LASAGABASTER-en
DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.
AUKERARIK ONENA
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## PUTZ EGITEN JAKIN BEHAR

Valentziatik Ricardo Casero tronboijolea zetorrela eta, dozena bat lagun inguru, tronboia besapean hartu eta haren atzetik joan ziren. Ostiralean hasi eta igandea bitartean, goiz eta arratsaldez jo eta jo ibili zen musikari talde hau.



## JAIA, JANA ETA JOKOA

Ez zen ezer falta izan "Corazón de Encina" talde extremadurarraren bosgarren urteurrenean. 250 bat lagun elkartu ziren ospakizun jaian eta denetarik egin zuten: babak jan, dantza egin, bilarrean jokatu…





GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

GAMMA
• ELEKTROLOGIA ZENTRUA
• BEHIN BETIKO DEPILAZIOA
Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta
Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 943 79 51 25

EKLIPSE
Erropak, tatuajeak, piercing-ak,..
Biteri Etorbidea, 15
Tel.: 943 77 02 69



## SORGINKERIA KONTUAK

Anboto azpialdean topatu omen zituen Tomas Zubillagak perretxiko erraldoi hauek. Haritz baten aldamenean zeudela dio, baina lekua sekretupean gorde du. Anbotoko Damarekin tratua egin ote du?



## KULTUR ERROTA JIRA-BIRAN

Txintxo-txintxo afaria jatera joan eta jende multzoa topatu zuen Ander Lipusek berari adi-adi begira. Hori bai poza! Horrela ez zuen bakarrik afalduko! Azkenean, lagun artean eta umore ezin hobean igaro zuten gau partea Amaia Antzokiko *hall*era hurbildu zirenak.



## GAZTAINAK ERRE ARTEAN...

San Andres Herri Eskolako haurrek ondo bete zituzten tripatxoak Gaztañerre ospatu zutenean. 15 kilo gaztaina erre zituzten danbolinean. Paperezko kukurutxoak tamainakoak ziren gero!




Elizondo
kafetegia
ELIZONDO
Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

S. CARRASCAL S.L.
**Guk egindakoak:**
- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

# "Jendeari zerbitzeko eta gure e



Misiolariak Morris Student hiztegiaren laguntza dute euskaraz aritzeko.

**Elder Kolzon, Elder Kroft, Elder Gordon Smith eta Elder Kelly mormoiak dira. EEBBetatik eta Ingalaterratik etorri dira eta Oñatin bizi dira. Jendeari zerbitzera etorri dira bai eta euren fedea ezagutaraztera. Laurek euskaraz egiten dute. Euskal Herrian oso denbora laburra daramate. Gehien daramanak, zazpi hilabete besterik ez eta gutxienak, bi. Baina, euskaraz hitz egiten dute!**

**Nola liteke? galdetuko diozue zeure buruari.**

**Diotenez, aditzak ikastean dago koska. Baina egia esateko, irakasle bikaina dutela ere aitortu behar. Mikel Morris estatubatuarraren ikasleak izan dira lau gazteak. Baina ez pentsa denbora luzea egin dutenik eskoletan. Morrisek hamahiru eguneko ikastaro trinkoa eskaini die. Beste guztia euren kabuz ikasi dute. Diotenez, goizeko 06:00etan jaikitzen dira otoitz egin eta eguneko egitaraua prestatzeko. Eta tartean, euskara ikasten dute. Meritua behintzat badute!**

Lau mutil gazte, ondo jantziak eta sekulako barrearekin aurpegian! Ez dituzue ikusi? Ziur baietz. Eta ziur harridura ere sortu zaizuela haiek ikustean. Eta betiko galdera, noski! Nortzuk dira? Elder Gordon Smith, Elder Kolzon, Elder Kroft eta Elder Kelly, mormoiak dira. Baina zer da mormoia izatea? Jesukristoren Eliza eta Azken Eguneko Santuena izenez, 1830ean Joseph Smithek sorturiko mugimendu erlijiosoa da mormonismoa.

Bibliaz gain, mormoiek euren liburu santu berezia dute, Mormoien liburua, J. Smithek 1830ean argitaratua eta Amerika herria Jainkoak hautatutakoa dela dioena.

Diotenez, Joseph Smith 1805. urtean jaio zen eta 1820an izan zuen lehen agerpena. XIX. mendeko EEBBetan erlijio ugari zeuden: metodistak, presbiterianoak, baptistak... Mormonismoa ere garai hartan zabaldu zen. Gaur egun 10 milioi jarraitzaile baino gehiago ditu munduan zehar. Gure artean ere geroz eta jarraitzaile gehiago ditu.

Gasteizen, Donostian eta Bilbon elizak dituzte mormoiek. Laster Arrasaten beste bat izan nahi dute.

## ELDER

Elder hitzak anaia esan nahi du. Kongregazioan elkarri deitzeko erabiltzen dute. Gure lau lagunek euren herria eta familiak utzi dituzte misiolari bezala aritzeko. Bi urtez hemen egon beharko dute euren fedea zabaldu eta lagun hurkoari laguntzeko. Elder Kroftek dioenez, "zerbitzatzera etorri gara eta jendeak hori jakin dezan nahi dugu". Hori horrela izanik, bi urte hauetan ez dute euren izen berezia erabiliko eta elder izango dira guztientzat. Hori dela eta, Roberto, Jorge, Mikel eta Jakobok, euren izenak baztertu eta Elder izango dira bi urte hauetan.

## GAZTEAK ETA MISIOLARIAK

20 eta 22 urte baino ez dituzte eta Jesukristoren hitza zabaldu nahi dutela erabaki dute. Horretarako misiolari egin dira. Bi urtez baino ez. Kroftek azaldu digunez, "hona

# Dena AUTO

## 2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilabetekaria.
3. zenbakia. 1998ko azaroa.
Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Txos Azurmendi.
Tirada: 11.500 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxa: 943 76 29 77.




| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **ASEGINOLAZA AUTOAK. Urteaga 37. Bergara. Tf. 943 76 12 50** | | | | |
| Opel Omega | | 1994 | Full equiped | *7 |
| Seat Marbella | | 1996 | IK, 9.000 Km | *3 |
| Ford Mondeo TD | | 1993 | 4 ate, IK, Airbag, IZ, KE, A | *6 |
| Ford Escort TD | | 1996 | Airbag, IZ, KE, IK | *6 |
| Ford Orion D | | 1991 | | *3 |
| **AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30** | | | | |
| Peugeot 806 ST 2.0 | | | AG, IZ, KE, LD, Airbag | *7 |
| Peugeot 406 Diesel | | | AG, IZ, KE, LD, Airbag | *7 |
| Peugeot 306 Sedan 1.6 | | | IZ, KE, LD, Airbag | *6 |
| Peugeot 306 XN 1.4 | | | LD, Airbag | *5 |
| Peugeot 106 Sketch D | | | 3 ate, | *4 |
| Peugeot 106 Sketch 1.1 | | | 3 Ate | *4 |
| Opel Combo Diesel | | | LD | *5 |
| **BERGARA AUTOAK. Amillaga 10. Bergara. Tf. 943 76 04 58** | | | | |
| Mitsubishi Pajero 2.5 TDI | Ipintzeko | 1992 | AG, IZ, KE, IK, Suspentsio moldagarria | Kontsultatu |
| Mitsubishi Pajero 2.5 TD | Ipintzeko | 1991 | LD, IK | Kontsultatu |
| Opel Frontera 2.3 TD | SS-AP | 1993 | LD, IZ, KE | Kontsultatu |
| Ford Transit Luzea | SS-AH | 1990 | IK | Kontsultatu |
| Ford Courier 1.8 D | SS-AP | 1993 | IK | Kontsultatu |
| Audi 80 TDI Familiarra | Ipintzeko | 1993 | AG, LD, IZ, KE | Kontsultatu |

**AG:** Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagunak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
**HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa

***1:** 300.000 PTAra arte
***2:** 300.000-500.000 PTA
***3:** 500.000-750.000 PTA
***4:** 750.000-1.000.000 PTA
***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA
***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA
***7:** 2.000.000 PTAtik aurrera

Urrun-managailuen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekanbioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN
Automobilaren karburazio eta elektronika
Airtel
Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

AUTO DESGUACES BERGARA

943 76 35 47 (desguazekoa)
943 79 76 33 (etxekoa)
BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA


TXURRUKA AUTOAK S.L.
- Garajea
- Garraio zerbitzua
- Taxi zerbitzua

Aitziturri 5. San Lorentzo. Bergara.
Tf. eta faxa: 943 76 12 36.

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| BMW 325 TDS | Ipintzeko | 1995 | KL, ABS, Airbag | Kontsultatu |
| Audi 80 TDI | Ipintzeko | 1992 | KE, LD, IZ | Kontsultatu |
| **BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43** | | | | |
| Ford Sierra | SS-Z | 1987 | 4 ate, Km gutxi, Egoera bikainean | 350.000 |
| Audi 80 1.8 E | SS-AB | 1988 | KE, LD, IZ, Egoera onean | 800.000 |
| Citroen C15 Club | SS-AC | 1988 | | Merkea |
| Citroen BX 1.7 TZD | SS-AM | 1992 | ABS, AG, 4 KE, LD, IZ, AH, LK | 800.000 |
| VW Santana TD | BI-AF | 1984 | | Merkea |
| **BLANCO TAILERRAK. Amillaga 22. Bergara. Tf. 943 76 17 35** | | | | |
| Ford Escort RS Turbo | SS-AC | 1988 | AL, LD, Recaro Jarlekua ... | *3 |
| Opel Corsa 1.2 S | SS-AG | 1989 | KE, IZ, IK, Oso ondo zaindua | 350.000 |
| Citroen BX 1.6 TRS | SS-U | | IZ, 100.000 Km | 150.000 |
| **CHAPIME TAILERRA. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 06 57** | | | | |
| Ford Escort 1.8 D | | 1990 | Zuria, 6 hilabeteko garantia | *3 |
| Citroen BX 1.9 GTI | | 1989 | Furio gorria, 6 hilabeteko garantia | *1 |
| Citroen ZX 1.9 D | | 1993 | Graphit gris, 12 hilabeteko garantia | *4 |
| Citroen ZX 1.6 i Avant | | 1996 | Zuria, 12 hilabeteko garantia | *5 |
| Citroen ZX 1.4 i Tonic | | 1996 | Griote gorria, 12 hilabeteko garantia | *5 |
| Citroen BX 1.9 TGS | | 1990 | Graphit grisa, 3 hilabeteko garantia | *1 |
| Fiat Tempra | | 1990 | Grisa, 3 hilabeteko garantia | *3 |
| Citroen AX 1.1 TRE | | 1989 | Marroia, 3 hilabeteko garantia | *1 |
| Citroen AX 1.4 TZS | | 1988 | Grisa, 3 hilabeteko garantia | *1 |
| Fiat Uno Turbo IE | | 1990 | Beltza, 3 hilabeteko garantia | *2 |
| Opel Corsa 1.2 S | | 1990 | Zuria, 3 hilabeteko garantia | *1 |
| Renault 19 | | 1989 | Zuria, 6 hilabeteko garantia | *2 |
| Citroen Xsara 1.9 TD SX | | 1997 | Libel berdea, 12 hilabeteko garantia | *7 |
| Citroen Xsara 1.9 TD SX | | 1997 | Vega berdea, 12 hilabeteko garantia | *7 |
| Citroen Xsara 1.9 TD LX | | 1998 | Zuria, 12 hilabeteko garantia | *6 |
| Citroen Xsara 1.6 i LX | | 1996 | GPV urdina, 12 hilabeteko garantia | *6 |

**AG:** Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagunak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
**HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa

***1:** 300.000 PTAra arte
***2:** 300.000-500.000 PTA
***3:** 500.000-750.000 PTA
***4:** 750.000-1.000.000 PTA
***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA
***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA
***7:** 2.000.000 PTAtik aurrera

**GARAJE MURILLO**
Mekanika orokorra
Leizeaga 4 • Bergara
Tf. 943 76 13 84
IVECO
Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA
Javier Gallastegi Arenaza
Tailer profesionala
• Mekanika orokorra
• IAT/ITVrako prestaketa
ORAIN HELBIDE BERRIA!
Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20

ARRASATE GARBIKETAK, S. KOOP.
AUTOZERBITZUA
- Autoa eskuz garbitzea
- Jarleku etatapizerien garbiketa
- Autoaren azterketa
- Mekanika orokorra
- Eta abar...
Uribarri 20. Arrasate.
Tf. 943 79 52 76

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Citroen ZX 1.6 i Tentacion | | 1997 | Zuria, 12 hilabeteko garantia | *5 |
| Citroen ZX 1.6 i Tentacion | | 1997 | Graphit grisa, 12 hilabeteko garantia | *5 |
| Citroen Saxo 1.5 D | | 1998 | Quartz grisa, 12 hilabeteko garantia, 4 ate | *5 |
| Citroen Xantia 2.1 TD SX | | 1997 | Vega berdea, 12 hilabeteko garantia | *7 |
| GURTZAIN GARAJEA. Almirante Bikuña z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 629 43 74 12 | | | | |
| Land Rover 109 Especial | | | 4 gurpil berri, Kolore berdea, Egoera onean | *2 |
| Mercedes 250 S | | | Dena jatorrizkoa, Kolore beigea | *3 |
| WV Transporter | | | Txapa eta mekanika ona, Margotu berria | *3 |
| Mini Morris | SS-D | | Dena jatorrizkoa, 80.000 Km, Kolore berdea | *2 |
| Fiat Croma 2.0 i | | | Kolore gris iluna, Garantia | *3 |
| ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49 | | | | |
| Nissan Patrol Canto 6 Cil. | SS-AG | 1990 | Garantia | 1.500.000 |
| Citroen Xantia 2.1 TD VSX | M-TH | 1996 | Garantia, Km gutxi | 2.400.000 |
| Citroen AX Diesel GT | SS-AJ | 1990 | KE, IZ, Estrak, 3 ate | 550.000 |
| Rover 820 Si | SS-AF | 1989 | AG, Estrak | Interesgarria |
| KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98 | | | | |
| VW Golf 1.8 | SS-AP | 1993 | LD, IK, IZ, KE, 5 ate | *5 |
| Ford Courier 1.8 D | SS-AL | 1991 | IK | *2 |
| Fiat Uno 70 | SS-AC | 1988 | IK, IZ, KE, 3 ate | *2 |
| Fiat Uno 70 | BI-AU | 1988 | IK, IZ, KE, 3 ate | *2 |
| LENIZ GARAJEA. Aingeru ibiltokia 31. Eskoriatza. Tf. 943 71 50 61 | | | | |
| Renault Expres D Combi | SS-X | | | 350.000 |
| MARKIEGI AUTOAK. San Lorentzo z/g. Bergara. Tf. 943 76 35 09 | | | | |
| Opel Ascona 2.0 iE | SS-Y | | AH, Konpondutako motorea | *2 |
| Ford Escort Fam. 16 V CLX | | 1993 | | *4 |

**AG:** Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagunak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
**HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Laguntduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa

***1:** 300.000 PTAra arte
***2:** 300.000-500.000 PTA
***3:** 500.000-750.000 PTA
***4:** 750.000-1.000.000 PTA
***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA
***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA
***7:** 2.000.000 PTAtik aurrera


JASO GARAJEA



Autoen konponketa orokorra

Orain helbide berria!

Amillaga 1, 4 pabilioia. Bergara.Tf. 943 76 33 00

TXOMIN GARAJEA

ad Tailer profesionala

Aprobetxa itzazu neguko kanpainako eskaintza bereziak!

Lizarraga auzoa. Antzuola.
Tf. 943 78 70 77

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| **MECA TAILERRAK. San Andres auzoa 8. Arrasate. Tf. 943 79 59 99** | | | | |
| Renault Laguna RT 2.0 | | 1997 | AG, IK | 1.950.0000 |
| Renault Megane Clasicc Alize 1.6 | | 1998 | AG, IK | 1.795.000 |
| Peugeot 106 Rallye | | 1996 | AG | 1.300.000 |
| Renault Express 1.4 Symbol | | 1990 | IK | 325.000 |
| Citroen BX TZD 1.7 DT | | 1992 | AG, IK | 825.000 |
| **MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44** | | | | |
| Ford Scort 1.4 Atlanta | | 1998 | Full equiped, la berria | Kontsultatu |
| Ford Mondeo 2.0 i | | 1997 | Full equiped | Kontsultatu |
| Ford Mondeo 2.0 TD | | 1997 | Full equiped | Kontsultatu |
| Ford Mondeo 2.0 TD | | 1998 | Full equiped, la Berria | Kontsultatu |
| Citroen ZX 1.4 | | 1996 | Full equiped | Kontsultatu |
| Ford Maveric 4x4 TD | | 1996 | AG, Estra ugari | Kontsultatu |
| Toyota Land Cruiser 4x4 TD | | 1998 | Full equiped | Kontsultatu |
| **OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74** | | | | |
| Opel Vectra 2.0 i GT | BI-BL | 1992 | AG, ABS, LD, KE, IZ, IK | Negoziatzeko |
| Opel Vectra 2.0 TDI | M-VS | 1998 | AG, ABS, Airbag, LD, KE, IZ, IK | Negoziatzeko |
| Opel Kadett 1.6 s GT | SS-AB | 1988 | IK, IZ, AH, AL | Negoziatzeko |
| Isuzu Trooper 4x4 | SS-AJ | 1990 | LD, IZ, IK, 7 eserleku | Negoziatzeko |
| Fiat Croma 2.0 i 16V | M-OM | 1993 | AH, LD, AG, IK, IZ, KE | Negoziatzeko |
| **SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80** | | | | |
| Peugeot 205 Rallye | BI-AX | | | *2 |
| Renault 25 V6 Turbo | C-AU | | Full equiped | *4 |
| Opel Vectra 16 V | SS-AK | | Full equiped | *4 |
| Opel Kadett 1.6 | M-HW | | 5 ate | *1 |
| VW Golf 1.6 | SS-AF | | 3 ate | *3 |
| Ford Fiesta XR2i | SS-AD | | | *2 |
| Opel Vectra 2.0 CD | Z-AJ | | | *4 |
| Citroen BX TD | SS-AL | | | *3 |
| Ford Orion 1.6 Ghia | SS-X | | | *1 |
| Fiat Uno 70 SX | SS-AH | | 5 ate | *2 |
| **TXOMIN GARAJEA. Lizarraga auzoa 8. Antzuola. Tf. 943 78 70 77** | | | | |
| Citroen AX 1.1 | SS-AB | | IK, 2 ate | *1 |
| Land Rover 88 Especial | | | | *2 |

**AG:** Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagunak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
**HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa

***1:** 300.000 PTAra arte
***2:** 300.000-500.000 PTA
***3:** 500.000-750.000 PTA
***4:** 750.000-1.000.000 PTA
***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA
***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA
***7:** 2.000.000 PTAtik aurrera

# [..]zaren berri emateko etorri gara"

etorri aurretik, lanean aritu ginen. Dena den, familien laguntza ere izan dugu. Etxean laguntza jaso ezin duenak, gure elizaren laguntza izaten du. Zerbitzeko helburua dute. Lan sozialak egiten dituzte: borondatezko bezala

Gurutze Gorrian, erretiratuen etxeetan, gutxitu fisikoei laguntzen, ingeles eskolak dohainik ematen... Kontua da zerbitzua ematea. Elder Kroftek dioenez, "beti saiatzen gara laguntza behar dutenak antzematen. Hasieran mesfidantza piska bat somatzen dugun arren, berehala ulertzen gaituzte eta gure beharra baldin badute, esan egiten digute. Jendeari zerbitzeko etorri gara". Ez zekiten Euskal Herria non zegoen, ez eta beste hizkuntza bat dugunik ere. Euskaraz ikasten jarri ziren. Misiolari izan nahi dutela esatean, ezin dute destinoa hautatu, baina lehentasuna izaten du tokian tokiko hizkuntza ikasi nahi duzula esateak.

## HIZKUNTZA PREMIAZKOA

Euskal Herrian asko dago hemen urte mordoa bizi izanda ere, oraindik euskararik ez dakitenak. Baina lau mutil hauek ez dute zerrenda hori luzatu nahi izan.

Argi dute etxetik ateratzea ikasteko izan dela eta lekuan lekuko hizkuntza ikasi beharra sentitzen dute. Hori dela eta, Aitorren hizkuntza zaharra ikastea erabaki zuten hemen lurra hartu bezain laster. Hamahiru eguneko ikastaro trinkoa jaso zuten Zarautzen. Irakaslea Mikel Morris, Zarautzen bizi den mormoia, Morris Student, euskaldunentzako ingeles hiztegia egin duena. Berak aditz taularen funtzionamendua irakatsi zien. Hortik aurrera euren kasa ari dira.

Eskuan daramate hiztegia, papera eta boligrafoa. Hitz berri bat entzuten duten bakoitzean, esanahiaz galdetzen dizute eta papertxoan apuntatu. Ahal duten guztietan euskaraz aritzen dira.

Elder Kroft da lauetako beteranoena. Zazpi hilabete daramatza gure artean. Aurretik Iruñean eta Galizan izan zen. Hantxe Gurutze Gorrian lan egin zuen, zerbitzua ematen. Elder Kolzonek, 5 hilabete egin ditu Euskal Herrian. Honek ere Gurutze Gorrian egin du lan. Elder Gordon Smith 4 hilabete da Ingalaterratik etorri zela eta Elder Kellyk, berriz, bi hilabete baino ez ditu egin hemen.

## ETXERA ITZULTZEAN

Lau misiolariek bi urte baino ez dituzte egingo misiolari bezala. Gero betiko bizimodura itzuliko dira. Kroft Idahora itzuliko da. "Hango euskaldunak ezagutu nahi ditut eta euskaraz hitz egin".

Kolzon kaliforniarra da eta etxera itzultzean literatura ikasketei ekingo die. Gordon Smith ingelesa da. Bera da lauretatik gazteena. Hemeretzi urte baino ez ditu eta etxera itzultzean pediatra izan nahi du. Kelly ere kaliforniarra da. Berak darama denbora gutxien gure artean: bi hilabete eskas. Misiolari izateari uzten dionean, dentista izan nahi duela baieztatu digu.

## EUSKADI ZORAGARRIA

Euskal Herria leku zoragarria dela esan digute. "Oso polita da. Mendiak eta Bizkaiko zein Gipuzkoako kostaldeak ezagutzeko parada izan dugu. Benetan polita iruditu zaigu", dio Kroftek. "Hasieran jendeak arraro xamar begiratzen digu, baina oso harrera ona egin digute. Jendea oso ondo portatu da gurekin eta lagun pila bat egin dugu. Gainera, hizkuntza eta kultura harrigarriak dira. Asko gustatu zaizkigu. Gure elizaren ordezkari bezala gaude hemen gure mezua zabaltzeko eta jendearen zalantzak argitzeko. Dena den, zerbitzen ari garenean ez gara gure fedeaz aritzen. Bereiztu egiten ditugu bi eginbeharrak".

Gaur egun Oñatin bizi diren arren, Kroftek, adibidez, laster utziko du gure bailara eta Elorriora egingo du alde. Bere ordez beste gazte bat gerturatuko da Oñatiko etxera eta berriz ere lau lagun ikusi ahal izango ditugu kalean gora eta behera, laguntza eskaintzen, Morris Student hiztegia beso azpian dutela. Dena euren sinistearen eta elizaren alde.

**Marijo Deogracias** ■



**Elder Gordon Smith, Jorge**
Ingelesa.
19 urte.
Lau hilabete Euskal Herrian.
Pediatria ikasiko du.



**Elder Kolzon, Robert**
Kaliforniarra.
20 urte.
Bost hilabete Euskal Herrian.
Literatura ikasiko du.



**Elder Kelly, Jacob**
Kaliforniarra.
20 urte.
Bi hilabete Euskal Herrian.
Dentista izango da.



**Elder Kroft, Michael**
Idahokoa.
20 urte.
Zazpi hilabete Euskal Herrian.
Okulista izango da.



# Horrela nik ere bai!

Ke Oxtias!!!-AC Surkos taldeen arteko norgehiagokan izan zen gure argazkilaria aurreko asteburuan. Eta begira zer lortu zuen. Ez dakigu jokalariak atezaina beldurtu eta honek hanka egin zuen edo sekulako jokaldi baten ostean jokalariak atezaina gainditzea lortu zuen. Kontua da bera bakar-bakarrik zegoela atearen aurrean baloia jaurtikitzerakoan. Horrela neuk ere gola sartuko nuke, ziur!

## Laburrak

### ■ UKABILKADAK ZALDIBARREN

Insert Coin eta Leya taldeen artean futbito partida bat baino gehiago ikusi ahal izan zen joan den larunbatean. Insert Coin taldeko Asier Otaduik sekulako ukabilkada eman zion Leya taldeko jokalari bati. Dirudienez, gainera, alde batetik bestera joan zen korrika horretarako. Galtzaile txarra dela erakutsi zuen Asierrek eta gainera zigor bezala ezingo du bi norgehiagoka jokatu.

### ■ JOKU ZIKINA

Euskal Presoak Euskal Herrira taldea You Knowren aurka aritu zen joan den jardunaldian. Astelehenero antolatzaileek egiten duten bileran EHEP taldeak partida horretan izan zuen joko zikinaz aritu ziren. Dirudienez, ez ziren oso garbi jokatzen aritu, sarrera gogorrak eginez. Gainera, epailea ere izutu egin omen zen eta ez zuen jokoa bideratzerik lortu. Talde honi ere abixua emango zaio antolaketaren partetik.

### ■ EGUTEGIARI ADI!

Abenduaren 8a zubia den arren, Futbito Txapelketak ez du jairik izango. Abenduaren 5ean eta 6an, norgehiagokak jokatuko dira beti bezala, bai eta abenduaren 26an eta 27an ere. Urte hasieran, urtarrilaren 2an eta 3an, ez da partidarik jokatuko.

### ■ SAILKAPENARI BURUZ

Orlando Piratas taldea aipatu beharrean gaude. Orain arte, behintzat, aurkako gol gutxien dituen taldea da. Beste aldean kokatzen da Etxe Mobel taldea. Hauek iaz ere, lehen fasearen amaieran, gol gehien jaso zituztenak izan ziren eta badirudi aurten ere bide beretik doazela. Bestalde, eta talde goleatzaileei dagokienez, Txantxiku Kirolak taldekoak ditugu gol gehien sartzea lortu dutenak. Txantxikuarrak orain artean 45 aldiz gainditu dute aurkariaren atea. Makai taldea dugu, ordea, gol gutxien sartzea lortu duena. Bi baino ez dituzte sartu.

OPEL



TAKOLO AUTOAK

OPEL FRONTERA BERRIA!

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

## Sailkapenak

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ORLANDO PIRATAS | 4 | 4 | 0 | 0 | 18 | 3 | **8** |
| AC SURKOS | 4 | 4 | 0 | 0 | 24 | 10 | **8** |
| LONTXO TABERNA | 4 | 3 | 1 | 0 | 24 | 7 | **7** |
| PEPELUS | 4 | 3 | 1 | 0 | 15 | 7 | **7** |
| XHASSS UGARTE | 4 | 3 | 1 | 0 | 26 | 11 | **7** |
| KOM. ALPARGAT | 4 | 2 | 1 | 1 | 20 | 13 | **5** |
| KE OXTIAS !!! | 4 | 2 | 0 | 2 | 20 | 11 | **4** |
| ALDIBI | 4 | 2 | 0 | 2 | 16 | 9 | **4** |
| REX 23 | 4 | 2 | 0 | 2 | 13 | 10 | **4** |
| LEYA | 4 | 2 | 0 | 2 | 12 | 12 | **4** |
| INSERT COIN | 4 | 2 | 0 | 2 | 10 | 14 | **4** |
| SERENGETI HC | 4 | 2 | 0 | 2 | 9 | 18 | **4** |
| BALON ROJO | 4 | 1 | 1 | 2 | 6 | 16 | **3** |
| BUKANAK | 4 | 1 | 0 | 3 | 6 | 21 | **2** |
| ALAI GOZOKIAK | 4 | 0 | 1 | 3 | 11 | 21 | **1** |
| SAUKELU SCREAM | 4 | 0 | 0 | 4 | 7 | 18 | **0** |
| ROTOR BOLBO. | 4 | 0 | 0 | 4 | 5 | 21 | **0** |
| MAKAI | 4 | 0 | 0 | 4 | 2 | 22 | **0** |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| TXANTXIKU KIROL. | 4 | 4 | 0 | 0 | 45 | 7 | **8** |
| AURRERA BOLIE | 4 | 4 | 0 | 0 | 20 | 8 | **8** |
| NARANJA MECAN. | 4 | 3 | 1 | 0 | 26 | 12 | **7** |
| KKJAURI | 4 | 3 | 1 | 0 | 18 | 11 | **7** |
| IRATI STS | 4 | 2 | 1 | 1 | 25 | 12 | **5** |
| LOS HEREDIA | 4 | 2 | 1 | 1 | 12 | 10 | **5** |
| BORROCK & ROLL | 4 | 2 | 1 | 1 | 14 | 12 | **5** |
| GARAJE OSKAR | 4 | 2 | 0 | 2 | 21 | 13 | **4** |
| ZOTZ | 4 | 1 | 2 | 1 | 24 | 16 | **4** |
| AT CELAYA | 4 | 2 | 0 | 2 | 11 | 16 | **4** |
| POTROSORRI | 4 | 2 | 0 | 2 | 12 | 24 | **4** |
| DIEGO ANTONIO | 4 | 1 | 1 | 2 | 11 | 21 | **3** |
| DKB | 4 | 1 | 0 | 3 | 19 | 20 | **2** |
| KOKA JUNIORS | 4 | 1 | 0 | 3 | 10 | 16 | **2** |
| PUB ARROGOI | 4 | 1 | 0 | 3 | 7 | 23 | **2** |
| LAUTERBRUNENN | 4 | 0 | 1 | 3 | 9 | 25 | **1** |
| ATERPE KAFETEGI. | 4 | 0 | 1 | 3 | 11 | 28 | **1** |
| ETXE MOBEL | 4 | 0 | 0 | 4 | 9 | 30 | **0** |

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| DRIBLING | 4 | 4 | 0 | 0 | 19 | 7 | **8** |
| YOU KNOW | 3 | 3 | 0 | 0 | 17 | 5 | **6** |
| POTROAK | 4 | 3 | 0 | 1 | 18 | 7 | **6** |
| SOKOAKOAK | 4 | 0 | 3 | 1 | 18 | 12 | **6** |
| AITA MENNI 2010 | 3 | 2 | 1 | 0 | 14 | 9 | **5** |
| JOTAKABAU | 4 | 2 | 1 | 1 | 9 | 10 | **5** |
| BAR NUEVO | 3 | 2 | 0 | 1 | 14 | 11 | **4** |
| EPEH | 4 | 1 | 2 | 1 | 14 | 11 | **4** |
| TOTEM | 4 | 2 | 0 | 2 | 11 | 10 | **4** |
| BRANKA TABERNA | 4 | 1 | 2 | 1 | 12 | 15 | **4** |
| FRAGEL GOL | 4 | 1 | 1 | 2 | 9 | 9 | **3** |
| JAKO AL REY | 4 | 1 | 1 | 2 | 11 | 12 | **3** |
| KAMASUTRA | 4 | 1 | 1 | 2 | 13 | 15 | **3** |
| DECADENCIA | 4 | 1 | 0 | 3 | 7 | 8 | **2** |
| BETRAYER1 | 3 | 0 | 1 | 2 | 6 | 12 | **1** |
| EUSKO LABEL | 4 | 0 | 0 | 4 | 11 | 28 | **0** |
| CONSTRUC. LUSO | 4 | 0 | 0 | 4 | 5 | 28 | **0** |

## Norgehiagoka interesgarriak

**Larunbatean, Zaldibarren**

**12:00etan Naranja Mecanica - Irati STS**

**16:00etan Lontxo Tab. - Kom. Alpargat**

**Iturripe Bn**

**17:00etan Dribling - Bar Nuevo**

## Emaitzak

**A TALDEA**

Bukanak 1 - Rex 23 7
Lontxo Tab. 3 - Xhaass Ugarte 3
Insert Coin 1 - Leya 4
Saukelu Scream 1 - Aldibi 5
Orlando Piratas 8 - Makai 0
Ke Oxtias !!!! 4 - AC Surkos 6
Rotor Bolbo. 1 - Serengeti HC 2
Balon Rojo 0 - Kom. Alpargat 5
Alai Gozokiak 1 - Pepelus 4

**B TALDEA**

Borrck & Roll 4 - Etxe Mobel 1
DKB 9 - Lauterburnnen 4
Los Heredia 2 - Protrosorri 0
Aurrera Bolie 7 - AT Celaya 2
Garaje Oskar 5 - Pub Arrogoi 1
Naranja Mec. 7 - Koka Juniors 2
KKJauri 7 - Ẓotz 5
Aterpe Kafe. 1 - Diego Antonio 3
Txantxiku Kirolak 6 - Irati STS 4

**D TALDEA**

Construc. Luso 1 - Fraguel Gol 5
Potroak 3 - Totem 2
Dribling 3 - Jako al Rey 0
Decadencia 1 - Jotakabau 2
Sokoakoak 7 - Eusko Label 1
EPEH 2 - You know 3
Kamasutra 3 - Bar Nuevo 5
Branka Tab. 6 - Aita Menni 10

## Hurrengo partidak

**AZAROAK, 28, LARUNBATA**

**Zaldibar**

09:50 Aterpe Kafetegia - Koka Juniors
11:00 Betrayer - You Know
12:00 Naranja Mecanica - Irati STS
13:00 Bukanak - Orlando Piratas
14:00 EPEH - Aita Menni 2010
15:00 Alai Gozokiak - Makai
16:00 Lontxo Taberna - Kom. Alpargat
17:00 Decadencia - Jako al Rey
18:00 Balon Rojo - AC Surkos
19:00 Los Heredia - Zotz

**Iturripe A**

11:00 DKB - Diego Antonio
12:00 Xhasss Ugarte - Rex 23
13:00 Borrock & Roll - Garaje Oscar
14:00 Totem - Fraguel Gol
15:00 Branka Taberna - Eusko Label
16:00 Construcciones Luso - Sokoakoak
17:00 Kamasutra - Jotakabau

**Iturripe B**

13:00 KKJauri - AT Celaya
14:00 Saukelu Scream - Leya
15:00 Lauterbrunnen - Etxe mobel
16:00 Insert Coin - Serengeti HC
17:00 Dribling - Bar Neuvo

**AZAROAK 29, IGANDEA**

**Zaldibar**

09:50 Rotor de Bolbogrado - Aldibi
11:00 Aurrera Bolie - Potrosorri
12:00 Txantxiku Kirolak - Pub Arrogoi
13:00 Ke Oxtias!!! - Pepelus
Atsedena: D Taldea: Potroak

*Arrasate Kirolak Atletiko taldeko jokalaria*

# UNAI SARABIA

## *"Nahiko ondo joan zen denboraldia, baina aurtengoa gogorragoa izango da"*

**— Joan den larunbatean lehena izan zinen 200 m.ko lasterketan. Gustura?**

— Bai, oso. Estatukoen artean denborarik onena egin nuen. Ez dakit non izango den Espainiako txapelketa, baina kanpoan izatea gustatuko litzaidake. Iaz ere parte hartu nuen, baina Donostian jokatu zen.

**— Horrelakorik lortzea espero zenuen?**

— Ez. Orain dela hilabete hasi ginen entrenatzen eta 23 segundu edo, egingo nuela uste nuen. Iaz 24" egiten nituen. Beraz, 22"6 egitea oso ondo dago.

**— Iaz zer moduz aritu zinen?**

— Nahiko ondo joan zen denboraldia, baina aurtengoa gogorragoa izango da. Iaz gazte mailan izan nintzen eta juniorretan. Oraingoa maila altuagoa da eta lan gehiago egin behar da.

**— 200 m.tan aritzen zara beti?**

— Ez. Pista estalian 60 eta 200 m.tan aritzen naiz. Bestela, kanpoan, 100 eta 200etan. Pista estalian pistak txikiagoak dira eta horregatik aldatzen da distantzia.



**— Zer nahiago duzu, 60 edo 200 m.koak?**

— Erdikoak nahiago, 100 bat metro.

**— Badakizu Musakolan pistak egitea onartu duela Udalak?**

— Hori ez da batere berria. Ea noiz egiten dituzten, ez dago-eta entrenatzeko lekurik herrian.

## SASKIBALOIA
### Seigarren garaipena

Arrasate Saskibaloi talde nagusiak ligako 6. garaipena lortu zuen joan den larunbatean Donostian. Askatuak taldearen aurka aritu ziren eta 71 eta 80 menderatu zuten. Galtzen hasi ziren arren, markagailuari buelta ematen jakin izan zuten mondragoetarrek. Juniorrek eta haur mailakoek, berriz, ez zuten zorte onik izan. Juniorrek Beasainen aurka 76 eta 57 galdu zuten eta haur mailakoek 61 eta 53, Bergararen aurka.

Aste honetan etxean arituko dira. Aurrez aurre Pais Vasco Siglo XXI izango dute. Norgehiagoka 19:00etan izango da.

## FUTBOLA
### Kanpoan ere ezin

Preferente mailako Mondra taldekoak 3 eta 0 galdu zuten Beti Onak taldearen aurka. Lehen minutuetan mondragoetarren atea ondo babesten jakin zuten, baina azkenean ezin izan zuten etxekoen erritmoa eutsi eta partida galdu zuten. Mondra, sailkapeneko 18. tokian kokatzen da eta aste honetan bigarren tokian sailkatua dagoen Bergararen aurka arituko da Atxabalpen. Norgeahigoka igandean, 15:30etan izango da.

## ESKUBALOIA
### Hamarretik hamar

Sailkapeneko azken tokian segitzen du Arrasateko Eskubaloi taldeak. Joan den astean ere, tantu bateko aldearekin galdu zuten Loiola-Indautxu-Deustua taldearen aurka. Nahiko partida txarra izan zen eta joko aldetik ere ez zuten oso joko ona erakutsi bi taldeek. 5 goleko tartea zuten bilbotarrek mondragoetarrek denbora eskatu zutenean. Gainditzea ere lortu zuten eta gol batera geldituz. Bukaerarako 4 minutu falta zirenean penaltia egin zieten mondragoetarrei. Baina partida berdintzeko aukera izan zuten arren, ez zuten asmatu eta 18 eta 17 galdu zuten. Larunbatean Iturripen arituko dira, Usurbilen aurka 17:00etan.

## XAKEA
### Puntu gutxi

Bina berdindu zuten San Andres Xake taldekoek joan den larunbatean. Donostiako Gros auzoan aritu ziren Hernando, Ortega, Ruiz eta Arriaran hango taldearen aurka. Preferente mailako San Andres taldea ez dabil fin aurten. Erdi-beheko tokietan dago sailkatua. Lehen mailako taldea, berriz, Bergararekin lehian ari da lehen tokietan. Preferentekoak etxean arituko dira aste honetan. Gros B taldearen aurka aritu ko dira Hernando, Tornay, Arriaran eta Ruiz.

## ATLETISMOA
### Beteranoak fin

XXX. Irun Kros proban aritu ziren beterano mailan Mari Jose Gil eta Zesar Diez korrikalari mondragoetarrak. Emakumeetan bigarren tokian gelditu zen Gil. Diez, berriz, zazpigarren tokian sartu zen.

# Bonba Taldiek II. "Futbol 7 txapelketa" eratu du

Lopez Rekarte Futbol 7 txapelketa antolatu du bigarren urtez *Bonba Taldiek*. 12 eta 13 urte arteko neska-mutikoak arituko dira Gabonetako oporretan txapelketa honetan. Taldeak 7 jokalarik osatuko dituzte eta norgehiagokak Atxabalpe ondoko futbol zelaian jokatuko dira. Txapelketa abenduaren 20-21ean hasiko da.

Iaz zortzi taldek hartu zuten parte eta *Bonba Taldie*ko kideek adierazi digutenez, izena ematen duten taldeen arabera antolatuko dira norgehiagokak.

**IZEN EMATEA**

1986-87an jaiotako futbolariak Atxabalpeko bulegoetan eman beharko dute izena. Horretarako Atxabalpeko bulegoetatik pasa beharko dira jokalariak, NAN zenbakia edo familia liburuaren fotokopiarekin.



**Iaz zortzi taldek hartu zuten parte txapelketan.**

Bulegoa astearteetan eta ostegunetan egongo da zabalik, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara. Kontuan izan jokalariak federatu gabekoak izan beharko direla.

Iaz Construcciones Calas Esteban taldeak eskuratu zuen txapelketa honetan lau sari banatuko dira. Lehenengoa Lopez Rekarte saria izango da. Hau txapelketako talde irabazleak jasoko du eta *Bonbak* berak emango du. *Bonba Taldiek* ere emango du bere saria, antolatzaile bezala. Hirugarren saria herriko kirol denda batek emango du eta laugarrena, Mondragon Club de Futbolen saria izango da.

**NESKAK ERE BAI**

Iaz neska talderik egon ez bazen ere, txapelketan nesken futbol taldeak ere parte hartzea nahiko lukete Bonba Taldiekoek. Aurten ere neskei parte hartzeko aukera luzatu diete, nahiz eta badakiten ez direla erraz animatzen.


## *BAZKIDE KANPAINARAKO HORMIRUDI LEHIAKETA*

- *Hormirudiak **(34 x 30 bertikalean) neurrian** aurkeztu beharko dira, kuatrikomian.*
- *Nahi eta nahi ez hormirudian agertu beharreko testua **"Ametsa Eraikiaz Doa". "Egin zaitez bazkide AEDn".** Mezua ondo irakurri beharko da.*
- *Lehiaketa honetan **edozein pertsonak** hartu ahal izango du parte.*
- ***Saria** 25.000 pezetakoa izango da eta abenduaren 29an emango da ezagutzera.*
- *Hormirudiaren atzean ez da egilearen daturik jarriko, ezizen bat soilik. Egilearen datuak (izen-abizenak, jaiotze data, telefonoa eta helbidea) sobre itxi batean sartuko dira eta sobre horren azalean lanean jarri den ezizen bera jarriko da.*

***Lanak aurkezteko epea***
*Abenduaren 22an amaituko da.*

**EUSKALTZAINDIAK EUSKAL KULTURA ETA EUSKARAREN ALDE**




*Zuk ere BAI euskarari. Euskaltzaindia, 1978*




*Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. 1998*

*Lanak helbide honetara bidali beharko dira:*
***AED ELKARTEA • PABLO URANGA 4 behea.***
***20500 Arrasate • Tel.: 943 77 12 28***

*Epaimahaia AED elkarteak izendatutako zenbait pertsonak osatuko dute.*

AED ELKARTEA arrasate-gipuzkoa

Ametsa Eraikiaz Doa

# JAKOBA REKONDO (LANDAREETAN ADITUA)

# *“Gizakiak bizidun bezala ik*

**Jakoba Errekondo ingeniari tekniko agronomoa eta paisajista da ikasketaz. 37 urteko usurbildar hau betidanik izan da landare zalea. Dena den, gaur egun Zerain herriaren etorkizuna lantzen duen proiektu bat zuzentzen ari da, eta Legazpiko Lenbur fundazioan ere badihardu lanean. Ostegun goizetan Euskadi Irratia piztu eta han entzungo duzu bere ahotsa. Argian eta Elhyuarren ere landareei buruzko artikuluak idazten ditu. Azaroan eta abenduan zehar Ekin emakume taldeak antolatutako landareei buruzko ikastaroa ematen dihardu Gesalibarko Jentil-Ola elkartean.**

**— Arrasatera ikastaroa ematera zatozen zenbagarren aldia da?**

— Uste dut hirugarren aldia dela. Lehen Gesalibarren ere izana naiz, eta baita AEDn ere, oraindik Ekin sortu gabe zegoenean.

**— Noiztik landare zalea?**

— Betidanik gustatu izan zaizkit landareak. Gurasoengandik jasotako ohiturak edo bizimoduak ere zerikusia izango dute horretan.

**— Hitzaldietan non erakusten du jendeak interesa?**

— Herri txikietako biztanleek erakusten dute interes handiena. Oso ezberdina da, adibidez, Arrasaten AEDren egoitzean hitzaldia ematea edo Gesalibarren ematea. Ez tokiagatik bakarrik; baita publikoarengatik ere. Herri edo auzo txikietan jendeak harreman berezia izaten du landareekin. Kulturalki ere hedatu dute hori bizitzeko modu bat dela; naturarekin harreman berezia dute. Era berean, herri edo auzo txiki hauetan jende gehiago hurbiltzen da nire hitzaldietara.

**— Lekuen arabera jendeak interes ezberdinak ditu?**

— Bai. Nabarmena da toki urbanoetan eta baserri giroko tokietan dagoen aldea. Landa inguruetan jendeak baratzekiko, fruitarbolekiko eta basoekiko erakusten du interes handiena. Hirietan, aldiz, lorategiek eta etxe barruko landareek hartzen dute protagonismoa. Gutxi gorabehera, gaiak horrela bana daitezke.

**— Zer nolako jende mota joaten da zure hitzaldietara?**

— Batez ere emakumeak etortzen dira, hogeita hamar urtetik gorakoak gehienbat. Dena den, gizonezkoak eta gazteak ere gero eta gehiago etortzen dira. Baina, nire publikoa gehienbat irratitik ezagutzen nauen publikoa dela uste dut; irratsaioa ostegun goizetan izaten denez, entzule gehienak emakumeak dira orohar, etxekoandreak. Hori dela eta, nolabaiteko sona lortu dut haien artean, eta horiek dira gero gehien hurbiltzen direnak. Gazteak ere gero eta gehiago etortzen dira, eta hori oso interesgarria da nire ustez, naturarenganako nolabaiteko hurbiltasuna nabaritzen baitut hauengan.

**— Arrasateko hitzaldietan zer jorratuko da batez ere?**

— Niretzat garrantzitsuena landareak ikusteko eta tratatzeko beste era bat hautematea da. Jendeak ikus dezala landareak ez direla soilik gizakiarentzako ustiapen bat. Ekoizpen hori egokia izan dadin bizidun bezala ikusi beharko lituzte giza-



**“Nire publikoa gehienbat irratitik ezagutzen nauen publikoa dela uste dut, emakumeak batez ere”**

# i beharko lituzke landareak”

kiak landareak, eta ezagutzen ditugun eran jakingo dugu nola tratatu modu egokienean eta baita haiek modu egokienean tratatu ondoren etekin handiena ateratzen ere. Filosofia hori gero edozein gaitan aplika daiteke: etxe barruko landareen arazoetan, baratzetan, fruitarboletan… Niretzat garrantzitsuena zera da: jendeak beste ikuspegi bat har dezala edozein landareren arazoei aurre egiteko.

**— Irratian ere ibiltzen zara. Irratiko ala hitzaldietako hitz jarioa nahigo?**

— Dudarik gabe hitzaldietakoa, publikoa zuzenean baitago hauetan. Irratikoa ere asko gustatzen zait, komunikabide oso zuzena iruditzen baitzait. Gainera, irratian nik egiten dudana kontsultorioa da eta, beraz, honekin oso hartueman zuzena eta azkarra sortzen da. Jendeak arazo bat planteatzen du, nik erantzuna ematen diot eta hurrengo entzulearen galdera zeharo bestelakoa izan daiteke. Dena den, hitzaldietakoa nabarmenagoa da. Duda bat dagoenean sakonago azter daiteke. Bestalde, irratiak badu muga nagusi bat: denborarena hain zuzen ere.

**— Landare zaintzatik zer duzu gustukoen?**

— Nik uste dut dena atsegin dudala. Lana egin dut lorezaintzan, basoak sortzen, paisajista bezala, fruitarbolekin, diseinuan, negutegietan, baratzetan, etxe barruko landareei buruzko liburu bat idatzi dut…

**— Nola definituko zenuke zeure burua?**

— Ni landareekin zerikusia daukan edozer gauzarengandik interesa duen pertsona naiz. Gainera, zenbat eta gehiago dakidan, orduan eta gehiago dakit jakiteko gehiago gelditzen zaidala. Jeneralean hitzaldiak ematera joaten naizenean, gehiago ikasten dut nik beraiek baino. Landareei buruz duten hizkuntza, beren esaerak… Ikertzeko eta ikasteko izugarri dago landareen esparruan eta ez zait iruditzen egokia nire burua aditutzat definitzea.

**— Demagun baserritar bati gorrinak harrapatu diola patata uzta.**

— Gorrina hezetasun handiaren adierazle den onttoa da. Arazoa urtero errepikatzen den ikusi behar luke lehenik, eta horrela izanez gero, ez luke konponbiderik, ez baitu merezi produktu kimikoekin lurra tratamenduan jartzea. Beraz, lur sailez aldatu eta lur lehorrago batera aldatu behar luke uzta. Arazoa aurtengoa bada, berriz, kobre sulfatoarekin tratamendua egitea gomendatuko nioke. ■


POWER DUMBELL AEROBIC



Ekintza berria!

Konbinaziorik egokiena muskulazioa eta musika lantzeko

Larunbatetan:
11:15etatik 13:00etara

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Jokin Zaitegi Plaza, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17
(Sarrera: Hotel Mondragon-en ondotik)

# Kontzertua "Ekintza Zuzena" aldizkariaren 10.urteurrena ospatzeko

*Ekintza Zuzena* aldizkaria orain hamar urte argitaratu zen Bilbon lehenengoz. Hasiera batean kolektibo politiko baten mugimenduaren inguruan sortu bazen ere, honek porrot egin ondoren aldizkariak bere bideari jarraitu zion. 10. urteurrena ospatzeko ostiral honetan kontzertua eskainiko dute Arrasateko gaztetxean. El Corazón del sapo eta Eskizofrenia Rock taldeek hartuko dute parte gaueko hamarretan hasiko den musika emanaldian.

## ALDIZKARI LIBERTARIOA

Gaur egun hamar bat lagunek dihardute *Ekintza Zuzenean* lanean; beren helburua aldizkari libertario bat egitea da. Hots, zentsurarik gabeko aldizkaria. Josu Arteaga aldizkarian lanean ari den arrasatearrak adierazi bezala, "ideologia guztiak nahiko itxiak direnez, askatasun handiagoarekin argitaratutako argitarapenaren bila gabiltza. Hausnarketa gunea izan nahi dugu, borroka sozialak ezagutzea ahalbidetuko duen eztabaida eta kritika garatuz".

Hasieran 200 ale atera zituzten eta fanzine hutsa zen. Geroztik tirada aurrera joan da, eta jendeak ere erantzun polita eman die. Horretaz gain, anekdoten berri ere eman digu Josuk: "Jamaika aldean badugu harpide bat, eta baita Txilen eta Kanadan ere. Hori harritzeko modukoa da".



**Ekintza Zuzena aldizkariaren azken alea.**

## HARPIDEDUN ASKO

*Ekintza Zuzena* hiru hilabetero argitaratzen saiatzen dira. Dena den, publizitate eta diru laguntzarik ez dutenez, autogestioaren bidez egiten dute aurrera. Batez ere Hego Euskal Herrian saltzen dira *Ekintza Zuzena*ren aleak, nahiz eta batzuk Bartzelonan eta Madrilen ere saltzen dituzten. Josu Arteagak esan bezala, ordea, harpidedun gehien Espainia aldean dituzte: "Guztira 800 inguru harpidedun ditugu, eta Galizia, Levante, Katalunia eta Kanariar irletakoak dira hauetako asko".

Bilboko azken uholdetan, dena den, beren lokalak galera handiak izan zituen. Hori dela eta, kontzertuko sarrerekin irabazirik lortzen badute, zor hau kitatzen saiatuko dira.

## "Arrasate Festetan 1933" filma zaharberrituko du Euskadiko filmategiak

"Arrasate Festetan 1933" filma anonimoa da eta 12 minutuko iraupena du. Data hori badu ere, ez da erabat ziurra ordukoa izatea; dena den, Gerra Zibila baino lehenagokoa dela ongi dakite, filmen ikurrinaren aurreko euskal estandarte bat agertzen baita eta hori Gerra Zibilean debekatuta baitzegoen.

Orain, berriz, Arrasateko Udalak milioi erdi pezeta eta Foru Aldundiak beste 547.000 pezeta emango dizkio Euskadiko Filmategiari "Arrasate Festetan 1933" filma berrizteko. Zaharberritzea 10-15 egunean egingo da. Ondoren, filma jendaurrean jarriko da, Euskadiko Filmategian lehenbizi eta Arrasaten gero. Filmari musika jartzeaz Juan Carlos Irizar pianojolea arduratuko da.

Filmak herriko pertsonez gain, festetako hainbat momentu erakusten ditu.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

DISCOPOLIS
DISKO KONPAKTOAK • KASETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA
Juan Carlos Gerra plaza, 1 behea • ARRASATE
Tel.: 943 - 77 02 13

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

TINIEBLAS GONZALEZ, ZINE ZUZENDARIA

# "Euskal Herriko film laburrei etorkizun ona aurreikusten diet"

**Tinieblas Gonzalez 26 urteko gasteiztarra da, Galizian jaio, Alemanian hezi eta Euskal Herrian hazia. "Por un infante difunto" bere film laburraz Cannesko nazioarteko zine jaialdian Canal + saria eskuratu zuen film laburren zuzendari honek. Pasa den astean Arrasaten izan zen, beldurrezko eta fantasiazko zine maratoia aurkezten.**



**— Noiztik zara zine zalea?**

— Zaletasuna betidanik izan dut, baina ez nuen uste film laburren nahiz film luzeren bat egiteko aukera izango nuenik. Hasieran bideoarekiko zaletasuna izan nuen, eta, poliki-poliki, lan txikiak egiten hasi nintzen.

**— Zer helarazi nahi duzu "Por un infante difunto" lanarekin?**

— Mezua pertsona nagusiei zuzenduta dago: hobeto tratatu behar dituzte beren seme-alabak. Filmean umea ez da hiltzen, gurasoek eta, orohar, pertsona helduek hiltzen dute. Euskal Herrira lan bila etorritako kanpotarrek egoera latza sufritu zuten. Aitak emaztea eta haurrak egurtzen zituen, eta beldurraren ondorioz, amak ez zuen amaren egitekoa betetzen. Egoera hau ez da errepikatu behar, ez dugu amorruz bizi diren haur gehiago nahi. Film laburra nire esperientzia pertsonalean oinarritu da.

**— Lehen lanarekin arrakasta espero zenuen?**

— Ez, ezta antzik ere. Zerbait arraroa izan da. Gehienez Bilboko zinemaldian aurkeztea eta, agian, han arrakasta izatea espero nuen. Oso zaila ikusten nuen; izan ere, arazo ekonomiko ugari izan genituen grabatu bitartean. 96ko irailean hasi ginen grabatzen, baina aurten arte ezin izan dugu bukatu.

**— "Por un infante difunto"ren protagonista eta zu zertan zarete berdinak?**

— Julito eta haurtzaroko Tinieblas oso berdinak dira, gauza guztietan. Fisikoki ere antzekoa nintzen. Gizaki ona eta sineskorra, inuzentea da. Bizitzan egurra baino ez du jasotzen eta beste haur bat bilakatzen da, ondorioz, gorrotoz beterikoa. Biekin identifikatzen naiz.

**— Zein da Euskal Herriko film laburren etorkizuna?**

— Etorkizun ona aurreikusten diet. Hala ere, beldur naiz ez ote den bolada iragankorra izango. Arlo honetan lan egiten segitu beharko dugu. Errespetu bera zor zaie film laburrari zein luzeari. Jendeak uste du film laburrak gazteen jokoak baino ez direla, eta hori ez da egia. Badira film luzeak baino hobeak diren film laburrak.

**— Beste lanik eskuartean?**

— Egia esanda, daukadan arrakasta kaltegarria bihurtzen ari da hurrengo lana egiteko. Dena den, Karra Elejalde eta biok Edgar Allan Poe-ren "El poema del cuervo" obra egokitzen dihardugu. Grabaketa urtarrilean edo, asko jota, otsailean bukatzea aurreikusi dugu.

## "Film laburrei luzearen errespetu bera zor zaie"

## aste gazte

**■ DIRU LAGUNTZAK**

• "El Correo"k eta EHUk, kazetari lanetan aritzeko diru laguntza deialdia egin dute, azken ikasturtean kazetaritza ikasketak egiten ari diren ikasleei zuzendua. Epea: abenduak 1.

• Nafarroako Gobernuaren eskutik, kirolaren zientzien inguruan ikerketak egiteko aurre-doktorego mailako diru laguntzak. Epea: abenduak 2.

**■ LANA**

• Donostiako Euskararen Udal Patronatuak administrari laguntzaile bat behar du. Epea: abenduak 1.

• Barakaldoko Udalak, arkitektu bat behar du. Epea: abenduak 2.

• Aiako Udalak, aparejadore arkitektu tekniko bat nahi du. Epea: abenduak 5.

• Getxoko Udal Egoitzarako klinika laguntzaile bat behar dute. Epea: abenduak 7.

• Arrasateko Udalerako arkitektu bat behar da. Epea: EAOean argitaratu zain geratzen da.

• Azkoitiko Udalak, administrari bat behar du. Epea: EAOean argitaratu zain.

**■ IKASTAROAK**

• ICTEk antolatua, adinekoen psikopatologiari buruzko ikastaroa, abenduaren 10etik 18ra burutuko dena.

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak eratuta, hastapena eta ziurtasuna goi mendian ikastaroa, abenduaren 12an eta 13an Teleran egingo dena. Berri gehiago Gazte Bulegoan.

**Berri gehiagorako:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**☎ 943 77 00 65**

## ETXEBIZITZAK

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. 100m² ingurukoa eta egoera onean. Tel.: 943 79 21 46.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetako herrietan, bakarrik bizitzeko edo etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 71 46 (Fernando).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 94 445 10 71.

• Lau gazte gara gure autogestiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berrizteko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 09 (Itziar).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 20 20 (Iker).

### 5. Etxeak osatzeko

• Gela bat alokatuko nuke Arrasaten edo pertsona bat falta zaien etxebizitza osatuko nuke. Tel.:943 31 30 56. Gaueko 20:00etatik aurrera. Garikoitz

• Irakasle batek logela bat beharko luke, osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gauez deitu.

• Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Alokairuan hartuko nuke etxebizitza bat edo logela bat. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55 67 (astean zehar).

• Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

• Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

• Gela bat alokatzen da Arrasateko erdi aldean. Tel.: 943 79 87 59.

• Bi mutilek pisu merke bat alokatuko genuke. Etxebizitza osatzeko ere prest egongo ginateke. Tel.: 943 79 89 73.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

---

**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak

# 943 77 05 65

**ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)**

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

---

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garaje itxia salgai Zarugalde kaleko 16.ean. 16m²koa. Tel.: 943 79 02 79.

• Lonja salgai Uriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

### 19. Errentan emateko

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Garaje itxia salgai Kontzezino inguruan. 18,9m² ditu. Tel.: 943 79 96 17.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuek toki bat behar dute alokatzeko, Musakolan ez den beste edozein lekutan. Tel.: 943 79 17 19. (Sergio, gaueko 21:00etatik aurrera).

• Neska talde batek toki txiki bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 94 07 (Leire).

• Taberna alokatuko nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 / 930 444 658

• Lagun talde batek garajea edo lonja alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 69 64 (Xabier) edo 943 79 61 44 (Dani).

### 14. Errentan emateko

• 75 m²ko lonja bat alokagai Anboto kalean. Tel.: 943 79 98 07.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Andra euskalduna prest umeak zaindu, etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun andra gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 54 48.

• 40 urte inguruko emakumea prest pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko. Bokazio eta esperientziaduna. Tel.: 617 20 59 49.

• Turismoan lizentziadunak (euskara eta ingelesa daki) bidaia agentzia batean eta antzekoetan lan egingo luke. Tel.: 943 76 37 80.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko edo pertsona nagusiei konpainia egiteko. Tel.: 943 71 53 74 (goizetan edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera).

• 27 urteko neska prest legoke haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Taberna batean ere lan egingo luke. Zortzi urteko esperientzia du. Tel.: 943 77 08 13 (Mª Carmen).

### 18. Eskaerak

• Ile apaindegirako modeloak behar dira. Tel.: 943 77 09 44

• Esperientziadun sukaldaria behar da. Deitu 943 79 22 15 telefonora (astearteetan izan ezik).

• Ile apaintzaile esperientziaduna behar da. Tel.: 943 76 29 58.

• Emakumea behar da arratsaldeetan 6 eta 8 urteko umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 65.

• Aramaioko taberna batek zerbitzaria behar du asteburuetan. Tel.: 945 44 50 86.

• Aramaioko taberna batek garbitzailea behar du asteburuetan. Tel.: 945 44 50 86.

• Sukaldari laguntzailea behar da taberna batean, asteburu gauetan lan egiteko. Tel.: 943 79 11 25.

• Neska bat behar dugu fruitadenda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 01 79.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Margo eta marrazki artistikoko eskolak emarten dira. Tel.: 943 79 9 23

(eguerdian edo gauean deitu).

• Soprano profesionalak kantu eta ahots eskolak ematen ditu. Tel.: 943 76 65 24.

## 21. Eskaerak

• Frantseseko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 36 09 (Xabier).

• Neska bat behar da eskolak emateko adineko bati. Tel.: 919 337 582 (Taniaz galdetu).

• DBH 4. mailako ikasle batek matematikako eskolak hartuko lituzke larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara. Tel.: 943 79 93 07.

# MOTORRA

## 23. Saldu

• Peugeot 106 salgai. Tel.: 943 79 67 12 / 943 79 75 93.

• Ford Sierra 2.01 Guia salgai. Egoera onean. 130.000 km. Prezioa adosteko. Tel.: 943 79 72 34. David.

• Nissan Vanetta furgoneta salgai. VI-M. Merke-merke. Tel.: 943 79 58 29.

• Peugeot 106, 1100 injection salgai. 93 urtekoa. 70.000 km. 650.000 pta. (negoziatzekoak). Tel.: 607 86 16 98

# DENETARIK

## 26. Saldu

• Bi oheko logela osoa salgai, oso-oso merke. Tel.: 943 79 89 07

• Bulegorako altzariak salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 84 35.

• Flex markako literak salgai. Egoera onean. Prezioa 30.000 pta. Tel.: 943 79 57 64.

• Argazki makina salgai. Minolta X-300. Tamron 28-200 objetiboa. Starbiltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arratsaldez edo gauez.

• Bebe-Confort markako ume kotxea salgai. Euritarako plastikoa dauka. Aulki estalkia ere bai. Tel.: 943 79 38 16 (10:00etatik aurrera) Idoia.

• Mahai tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 18 50 (Sole).

• Alpha markako fly berde bat saltzen dut. Tel.: 943 79 54 14 Julen.

## 27. Erosi

• Zerrajerako egurrezko berogailu zahar bat erosiko nuke. Tel.: 943 79 11 24 (Ramon).

## 29. Eman

• Gurpil-aulkirik, taka-takarik edo makulurik badaukazu eta ez badituzu behar, beste pertsona batzuek bai. Harremanetarako telefonoa: Bego Falces. Osakidetzako gizarte-laguntzailea. Tel.: 943 77 03 46/943 77 12 37.

• SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eraman itzazu Zaldispeko aparkalekura edo Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

• Egoera onean dagoen eta 90 zm.ko luzera duen ohea (koltxoirik gabe) eman nahi dut, eta baita lanpara bat ere. Tel.: 943 79 68 57 (goizetan deitu eta Teresaz galdetu)

## 31. Galdu

• Pasa den ostiralean argazki album txikia galdu genuen Mikel Lasa aseguru etxearen eskaileretan. Aurkituz gero, deitu, mesedez, telefono honetara: 943 79 90 91 (Nerea).

• Maritxu gauean Osorik tabernan gizonezko trajearen jaka urdin iluna galdu nuen. Aranburun egindakoa da. Aurkituz gero, deitu mesedez. Tel.: 943 79 43 59.

• Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Urkulun, zorro eta guzti. Tel.: 943 79 10 39

• Pasa den larunbatean, azaroak 14, zilarrezko katea eta eraztuna galdu nituen, Arrasate Pasealekuaren inguruan. Aurkitzen badituzu, deitu 943 79 20 99

## 32. Aurkitu

• Ordularia agertu da Sokoa tabernan. Real Madridekoa da. Tel.: 943 77 00 89 (Monika).

## 33. Bestelakoak

• Arrasatetik Bilbora joan-etorria egiteko autobusa jarriko da. Goizeko 07:30etan irtengo da eta arratsaldeko 17:30etan itzuliko. Tel.: 943 79 01 00 (dei egin goizeko 09:00etatik 17:00etara eta galdetu Pedro Bidegurenez).




# Jostunen afaria

## Abenduaren 12an

### KAFETEGIKO MENUA

*Hasierakoen aukera*
*Zainzuriak*
*Arrain Budina*
*Antzara Patea*
*Urdaiazpikoa*

---

*Itsaski Krema*

---

*Bakailaoa Pil-Pilean*

---

*Txahal Masailak Sagar Konpotarekin*

---

*Moka Tarta Izozkiarekin*
*Kafea*

---

*Ardoak: Marin Palacios Rioja*
*Las Campanas Ardo Gorria*
*Cava: Bossuet*

*Prezioa: 4.750 pta.* ( BEZ*a barne* )

### JATETXEKO KARTA

*Mondragon hasierakoak*

*Otarraintxoak*
*Urdaiazpiko Iberikoa*
*Ahate Moussea*
*Zainzuriak*
*Legatz Pastela*

---

*Porru Hojaldrea*
*eta Ganbak bere Saltsatxoarekin*

---

*Salda*

---

*Legatza Saltsa Berdean Txirlekin*

---

*Idi Saihetsartekoa Lagungarriekin*

---

*Txokolate Tarta Banillarekin*
*Kafea*

---

*Ardoak: Marin Palacios Rioja*
*Las Campanas Ardo Gorria*
*Cava: Bossuet*

*Prezioa: 5.500 pta.* ( BEZ*a barne* )

**Eta afalostean...**




HOTEL MONDRAGON
**

Biteri Etorbidea, 16
Tel.: 943 71 24 33

# EEBBak eta Arrasate Pressen 10. urteurrena ATBn

Munduari bueltaka saioan EEBBetako parkeak izango dituzte hizpide datorren asteartean. Garikoitz Kortazarrek Imanol Exposito izango du gonbidatu gisa, Besaide mendizale elkarteko lehendakaria. Gaueko 21:30etatik aurrera, beraz, Iparrameriketara txangoa egiteko aukera izango duzue ATB piztuz gero.



Kaliforniako sekuoyako lorategia.

**ARRASATE PRESSEN 10. URTEURRENA**

Asteazkenean, berriz, *Arrasate Press*en 10. urteurrena dela eta, programa berezia izango da. Mondragoeko astekariaren sorrerari buruzko zertzeladak kontatuko zaizkigu lehenik. Beraz, hamar urte atzera egingo da, orduko *Arrasate Press* nolakoa zen gogora dezagun.

Azpiegiturari dagokionez, ordutik gaur egunera izandako bilakaera teknologikoa ere islatuko da programa horretan; baita urte hauetan guztietan astekariak izan dituen aldaketa nagusiak ere: diseinuari dagokionez, kolorea noiz sartu zen…

Horretaz gain, astekaria ateratzeko jarraitu beharreko prozesua eta herritarrek astekariari buruz duten iritzia ere erakutsiko da. Bestalde, gaur egun astekariak dituen erronka nagusienak zeintzuk diren ere azalduko ditu Joxe Aranzabal Arkoko erredakzio buruak.

**SOINUZ BLAI**

Ostegunean *Soinuz Blai* musika saioarekin nahi beste abesti entzuteko parada izango da ATBn, gaueko hamarretatik aurrera. Iban Gonzalez Arrasateko Ekon musika taldeko abeslari eta aurkezleak. Beraz, musika fresko askoa izango da, nahi duen guztiarentzat.

Ostiralean astean zehar izandako albisterik garrantzitsuenen laburbilduma egingo du Maider Osak *Astebete* saioan. Honen ondoren, berriz, *Soinuz Blai* programaren errepika izango da aurreko eguneko ordu berean, aurrez ikusi ezin izan duten guztiek ikusteko aukera izan dezaten.

## *ATBren programazioa*

**LARUNBATA, 28**

**13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika:** Musiklasik, Aurrez-aurre, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.

**IGANDEA, 29**

**13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika:** Musiklasik, Aurrez-aurre, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.

**ASTELEHENA, 30**

**13:30 Albiste aurrerapena** Zigor Txurruka lankidearen eskutik.
**13:35 Astebete** (Errepika).
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**
**21:30 Mondrasport** Itxaro Zubillagak aurkeztuta.

**ASTEARTEA, 1**

**13:30 Albiste aurrerapena.**
**13:35 Mondrasport** (Errepika).
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**
**21:30 Munduari Bueltaka.** EEBBetako parkeei buruz mintzatuko dira Garikoitz Kortazar eta Imanol Exposito.



Garikoitz Kortazar

**ASTEAZKENA, 2**

**13:30 Albiste aurrerapena.**
**13:35 Munduari bueltaka** (Errepika).
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**
**21:30 "*Arrasate Pressen* X. urteurrena" programa berezia.**

**OSTEGUNA, 3**

**13:30 Albiste aurrerapena.**
**13:35 "*Arrasate Pressen* X. urteurrena"** (Errepika).
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**
**21:30 "*Arrasate Pressen* X. urteurrena" programa berezia.**
**22:00 Soinuz Blai.** Iban Gonzalezen eskutik, nahi adina musika.

**OSTIRALA, 4**

**13:30 Albiste aurrerapena.**
**13:35 "*Arrasate Pressen* X. urteurrena"**
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**
**21:30 Astebete.**
**22:00 Soinuz Blai.** (Errepika).



Iban Gonzalez.



Argazki hau, 1957. urtekoa da. Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan ateratakoa da. Egun hartan Antonio Pagoagari domina ipini zioten. Ospetsua zen garai haietan. Karlista sutsua, "Jefatura Local del Movimiento"ren mitinetan hitz egiten zuen. Bere garaikideen esanetan, hizlari ona zen Antonio Pagoaga.

Bera bezala, argazkiko guztiak, "Jefatura Local del Movimiento", garai hartako alderdi bakarreko kideak ziren.

Ezkerretik hasita, Mariano Azkarate "Zelaitxo", Julio Otadui Arrasateko alkatea, Jose Maria Gomez del Moral Gipuzkoako gobernadorea, Antonio Pagoaga, Jose Maria Ezkurra (Uba) rekete konpainia bateko kapitaina, Jose Ramon Mendizabal juntakoa, donostiar alderdikide bat eta Santiago Bastida daude

***Argazkia:***
*Arrasateko Udala*


**Etxe Aundi**
*Hotela*** *Jatetxea*



***Gaur ez bada, bihar ezkonduko zara ... Etxe Aundin zure zain gaituzu.***

***Ospatu zeure ezkontza Etxe Aundi jatetxean***
***(250 lagunentzako aretoak)***

***Kontsulta itzazu 1998rako menu berriak, ezkontzako opari batekin txunditiko zaitugu***

Torreauzo, 9 • OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Faxa: 943 78 32 90




## Oso ondo egin behar dira autoak, bost urterako bermea eman ahal izateko

"3+2 Excellent 5 urteko Bermea" programa berriari esker, Nissanek zure ibilgailuaren ohiko bermea 3 urtetik 5 urtera zabaltzeko aukera eskaintzen dizu orain.

Kosto urri baten truke, bost urtean zehar Nissanen bermeaz gozatu ahal izango duzu, baldin eta edozein ezusteko izaten baduzu.

Ikusten duzu. Nissanen sinestuta gaude autoak ondo egiten ditugula. Gainerako guztiak urteak kentzen saiatzen diren bitartean, guk hartu egiten ditugu.

NISSAN

*Gidatu eta gozatu*

NISSAN

# ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA, 1 - TEL.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE




SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR